

ANAITASUNA

195 zenb. 1970

IRAILAK-15

Jardín Txikerra, 1 BILBAO-12

URTEBETETZEAN

Irailaren* 15-ean izango da urte bete duin*, guk ANAITASUNA-ren bigarren aldi honetan lehenengo alea atera genduanetik. Harrezkero, hamabostean behin ale berri bat atera izan dogu, hutsik egin barik: ale batzuk hobegoak, beste batzuk motelagoak.

Egia esan, ANAITASUNA hau ateratzeko hartu gendunean, orain baino alegantzia eta arintasun haundiagoz ekin geuntsan lanari. Gaur, berriz, ondo jakinik gagoz ardura haundiko lan bat dala. Eta gauero larritzen da gure burua, zeregin hau patxadaz betetzeko gauza ez ote garen bildurrez.

Urtebetegarrenean, ezer aipatzekotan, jarraiko hiru puntu datoz gure burura:

1. Eskritore ta berriemaileen errespontsabilidatea

Begien bistan daukagun arazoa, inportantzia haundikoa, euskeraz irakurtzeko zailtasuna da. Gure irakurleak gai batzuei buruz ezjakinak dira sarritan, eta euskeraz irakurtzeko erraztasun gutxi dauke gainera. Orduan, gai sakonak, sakonkiro erabili behar direla uste dogu. Baina irakurlerik gehienek gai sakon horreek ez ditue irakurriko. Orduan, albisterik* jakingarrienak eman beharra dago. Horregatik, penagarria da, hain erraz egin leiteken gauza interesgarri hori, hainbeste herritan egin barik uztea.

Nik neure burua diktadore bezala ikusteko asmorik ez dot, eta permititzen dot amets nahiz lo lasai egitea. Baina argi ta garbi esan beharra dago, amets eta lo egitearen frutuak ustelkeria, ugera eta lizunkeria direla.

Jendeak euskeraz ezer irakurtzerik nahi badogu, haren eskuetan gai irakurgarriak ta interesgarriak imini behar ditugu. Horretarako, zenbait* jende mugidu egin beharko da, sugandilaren antzera, zokorik zoko eta puntarik punta, aldizkaria leku guztietara heldu dadin. Eta gai jakingarriak eskaini* gura baditugu, artikulu serioak eman beharko, bereziki* banaka batzuentzat. Baina irakurlerik gehienentzat ere zerbait jakingarri eman beharko da. Horretarako, herrietako albistemaileak "periodista" bihurtu behar dira, fiolosofo, teologo ta soziologo iza-

teko grina alde batera utziaz. Eta, hara ta hona mugiduaz, modurik bizkorrean albisteak eman, jendeak daukan jakiteko gosea asetzeko.

2. Aldizkari baten garrantzia

Zenbait* jende, Euskal Herriaren salbazioa, ezagutzen ez ditugun mito eta mesiasetan jartzen dau, guk egunero egiten dogun lana gutxietsiaz*. Inoiz egingo ez diren "jatortasunekin" amets eginaz, egunero egin daikeguzan gauza garrantzitsuak egin barik gelditzen dira. Aldizkaria Euskal Herriko zoko guztietara heldu dadin, edonork egin daike zerbait. Eta horretarako eragozpenik haundienetakoa norberaren alferkeria izaten da.



Sinestu ezina da, hiru edo lauek euren lan etenbakoarekin lortu leikeena. Aldizkaria gehiago zabalduaz, asko irakurtzen dan eskualdeetan*, azken batean beste mentalidade bat sortzen da.

Guk gure erdal egunkarien* aurrean ezin geinke gauza haundirik egin. Baina egin geinkena nahiko gauza haundia da, eta egin barik uztea lotsagarri lizateke. Batez ere albistemaileek, hamabostero lan eginaz, iratzarri eta hezi egin leikee inguruko jendea.

Gure lan hau, kultura sailean darabilgun arazo hau, euskerazko irakurleak gehiagotzeko gudaketa hau, lan luzea ta neketsua da. Hemen ez dago mirakulurik, ez egun bakar batean emandako kolpe onaren frutu ederrik. Hemen, egunean egunean egin behar da lan, kontzientzia haundiz eta itxaropen haundiagoz.

3. Imanol Berriatuari aipamen berezia

Urtebetegarrenean, inoren lanik gogoratzekotan, Imanol Berriatua jakintsu haundiaren lan isil ta baliotsua aipatu behar dogu. Gure aldizkari honetan euskeraren batasun zehatz eta fidagarria eragin eta lortu badogu,

IBARROLAREN

“BURDIN IRAKINA“

Imanol Berriatuaren lan etenbako ta zientziak beterikoari zor deusagu. Hitz bitan esateko, Imanol Berriatua jakintsu bat da, eta, jakintsu guztiek bezala, pausorik txikiena ere oinarri sendoetan finkaturik ematen dau.

Haren lan isil, luze ta ugaria ezin dau Herriak ezelan ere ordaindu, lan horren balio neurribakoarekin kargutuaz izan ezik.

Urtebetegarrenean, beste urte berri hobego baten bila saiatuko garela zin egiten dogu.

ANJEL ZELAIETA

H E R R I Z

ZARAUTZ

Euskal Dantzarien Elkartea

Abuztuaren 24-ean eta 30-ean, 1.000 dantzari inguru bildu* ziren Zarautzen, 90 bat dantza taldeko dantzariak batu ziren elkarrekin, "Dantzarien Elkartea" oinarritu eta aurrera ateratzeko. Batzar honen buru Jose Maria Arozamena izan zan, Dantzarien Elkartearen lehendakari behinbehinekoa*. Erderaz eta euskeraz mintzatu zan. Honen ondoren, lehendakari ordezkioak, Olaizola jaunak, Elkartearen araudia* irakurri eban; eta, botoen bidez, ontzat eman zan. Jarraian, Iñaki Beobide mintzatu zan, elkarte berriaren garrantzia adieraziaz. Beste gauza batzuen artean, hurrengo batzarra Bizkaian egitea erabaki zan.

Iñaki Beobide mintzatu ostean, Elkartearen Zuzendaritza hautatu* zan: Lehendakari, J. M. Arozamena. Lehendakari ordezkio, Manuel Olaizola. Idazkari*, Jabier Aranburu. Diruzain, Juan Antonio Urbeltz. Bokalak: Maria Elena Erizmendi, Francisco Escudero eta Gaizka Barandiaran.

Dantza erakusketa

Dantzarien egunean, 30-ean, erakusketa nagusia egiterakoan, jarraiko dantzok dantzatu ziren: Zozo Dantza, Jemeingo Dantza, Luzaidako* Jauziak, Bizkaiko Ezpatadantza, Leitzako Ingurutxo, Laguardiako Katximorro, eta Zuberoko Maskaradak. Eta azkena egiteko, dantzari guztiek batera Agintariarenak dantzatu eban.

LARRAURI

Larrauri, Mungitik bizpahiru kilometrora dagoen herrirka bat da. Hilabete honen azkenetan izango dira bertako jaiak. 24-ean, ostegunetz*, kantariak izango dira arratsaldeko 6-retan. Eta 27-an, igandez*, Mertxe Urdanpilleta dantzari ospetsu zanaren II. oroitzapena egingo da, arratsaldeko 6-retan.

GALDAKANO ETA ETXEBARRI

Galdakano eta Etxebarri herrietan (25 bat mila bizilagun bietan), 12 midiku dira: 9 Galdakanon eta 3 Etxebarrin, 10 praktikante: 9 Galdakanon eta 1 Etxebarrin. Sortzain edo komadrona bakar bat herri bietan. 4 farmazia: 3 Galdakanon eta 1 Etxebarrin. Galdakanon ba dago haurrentzat* ere midiku berezi bat. Ehuneko 95 bat seguruen magalpean dira. Gainerakoek, edo ez dauke segururik, edo igualatorioan sarturik dagoz.

NABARNIZ

Xabier Kintana eta Mari Karmen Goiriena ezkondu dira

Irailaren* 5-ean, larunbatean*, ezkondu izan dira Nabarnizen Xabier Kintana, euskal idazle ta irakasle gaztea, eta Mari Karmen Goiriena, euskal andereñoa, iluntziko 6-retan. Elizaren

aldetik, Anjel Zelaietak egin eban abade testigantza. Ezkonberriak Nafarroa aldera abiatu ziren, eskualde* ha begiztatzera. Ezkonberriok Bilbon bizi izanena* dira, eta euskal letragintzan arituko*.

MUNGIALDEA

Abuztua izan dogu, Mungialdeko herri ta herrirka gehienetako jaien hilabetea. Nonnahi izan ditugu euskal abeslari, dantzari, erromeria, txapelketak, eta abar. Hobeto aztertzeke, goazen, guztiok banan banan azaltzen.

Abuztuaren 2-an, Billelako jaiak

Goizean, meza ostean, Mungiko "Eusko Amets" taldeko dantzariak eta Laukinizko abeslari talde bat, bertoko parroko jauna zuzendari zala. Ikusle gutxi, hizlaria euskeraz eta erderaz. Arratsaldean, euskal abeslarien saioa. Jarraian, erromeria orkestarekin. Hurrengo egunean, hauzuneko umeentzako jolasak, ukabilkariak eta erromeria. Programak erderaz, orkesta erderaz, antolatzaileak gazte talde bat.

Abuztuaren 9 ta 10-ean, Emerandoko jaiak

Erromeria ta soinuariak, besterik ezer ere ez. Hemen, gazteen lana.

Abuztuaren 9-an, Jatabeko jaiak

Arratsaldean, euskal abeslariak: Argoitia neba-arrebak, Joseba Zarraga, Ana Tere, Josu Zabalondo, Mila ta Txomin, eta Itziar Zuazo (honek lehenengoz kantatzen eban jendearen aurrean, eta esperantza haundia euki leiteke beragan). Jarraian, erromeria orkestarekin, 10 eta 17-an, erromeria. Orkesta erdalduna, programak erderaz, eta jendea erderaz hitz egiten.

Abuztuaren 16-an, Laukarizko jaiak

Goizean, karroza ederto apaindu bat kalera, hauzuneko gazteak eta txistulariak lagun zituala. Arratsaldean, makailo gertaketaren eta persona itsusien txapelketa. Gero, erromeria. Programak erderaz, orkesta erdalduna, antolatzaileak gazte talde bat.

Abuztuaren 16-an, Atxuriko jaiak

Goizean, meza ostean, Mungiko herriaren ikusterik ederrena karroza gainean jarriaz, kalejira. Ta enparantzan*, herri auresku eder bat eskaini* eutsen danei Atxuritar gazte batek. Arratsaldean, erromeria. Hurrengo egunean, asto ta zaldien arinketak, gazte-zahar sokatira, ume jolasak eta abar. Arratsaldean eta gauean, erromeria, 18-an, Atxuriko gazte ta zaharren elkartasun

eguna. Sagarpe eder batean, bazkaria ta afarria gertatu eta jan, txistu ta soinu artean guztia. Orkesta erdalduna, programak eta hizketak euskera hutsean.

Abuztuaren 23, 24 eta 25-ean, Gatikako jaiak

Jota sariketak, asto arinketak, grekorromana erakusketa, ume jolasak, eta abar. Euren artean, abeslari ezezagunen txapelketa ere* izan zan. Gehienek euskeraz abestu eban, Garaitzaile, Itziar Zuazo, Mungiko neska gaztetxo bat. Egun guztietan, erromeria orkestarekin.

30-ean, goizean, berebilen* "Rally" ta "Sukalki" txapelketa. Jendea ugari, bai ikusle ta bai parte hartzen. Arratsaldean, euskal kantari jaiak. Bertan, Mila ta Txomin, Ana Tere ta Amaia, Goienaga (zure abots horregaz, zergatik ez dozu gaia aldatzen? Euskal Herria soinu ta bertso lariz hornituta dago, inondik hartzen ibili barik), Argoitia neba-arrebak, Itxastarrak, Josu Zabalondo, Joseba Zarraga. Entzuleak ugari. Txalotuak izan ziren abeslariak. Bitartean ANAITASUNA aldizkariaren ale batzuk zabaldu zituen neska gazte batzuek. Pozik hartu genduan aldizkari hori. Orain arte hartzen ez dozue-nok, ba dakizue nora eskatu. Jai honeri azkena emateko, erromeria. Orkesta erdalduna, "Rally" guztia erderaz, "Sukalki" ta kantariak euskera huts hutsean. Programak erderaz eta euskeraz. Antolatzaileak gazte talde bat.

Albiste honeek emanaz, ez da gaitza edo zaila izango azterketa bat egitea. Nire eritziz, holantxe agertzen da gure egoera. Hainbat gazteren artean, euskera zaletasun gutxi. Erromeriak egiteko, euskal musikari hutsa aukeratzeko hainbat gazte arduratu dira. Baina ez dabe aurkitu izan. Danon artean programa egin behararen premina. Adibidez, zergatik kantari berdinak toki guztietan? JAIK HERRIAREN-TZAT, EUSKAL HERRIAREN-TZAKO EUSKAL JAIK, EUSKAL JAIK EUSKERAZ.

Abeslariak

Goizean ikusi ahal izan dogunez, ba ditugu Mungian ere* kantariak. Honek dira: Mila, Txomin, Xabier, Itziar Zuazo ta Joseba Zarraga. Nire itaunak: Sortuko ahal izango dozue giro jator bat danon artean? Noiz zuen arteko elkarte bat? Landu daigun gure Herria, kantatzen, dantzatzen eta ohitura on guztiak gordetzen jarraituaz.

ATXURIKO AITOR

H E R R I

BILBO

Telebisioa

"Estudio abierto" izeneko programak emisio bat eskaini* dau Bizkaitik.

Programa honekin, bizkaitarrok ez gara pozik geratu. Ez dau gaurko Bizkai kulturala ta musikalaria zer dan erakutsi. Folklorekeria hutsean ibili zan.

Adibidez, Txomin del Regato. Gizon honek, hainbeste miloiren aurrean, lotsagarri imini ginduzan. Ordua da, jaun horri EZETZ biribil bat emateko. Hobe leuke, jaialdietan lelokeriak esaten eta egiten ibili barik, etxean geratzea.

Eta adibidez, "Los Chimberos" eta "Anaiak" taldeak. Honeen abestiak ez dira gaurko bizkaitarren euskal kantu berria. Modaz pasatuak dira.

"Mocedades" taldearen "Oi Pello, Pello" eta Jon Libaronaren "Aizea bare bare" alde batera utzita, beste guztiak ez ziren gure abestiak; eta kantari batzuk ere, Salomé eta Pardo, ez ziren gureak.

Elkarrizketak, txarto aukeratuak, Berba egin eben guztiak, Zunzunegi eta abar, Bizkaiko erdaldunak ziren. Non egoen Bizkaiko euskal kulturaren errepresentazioa? Bizkai osoa erdalduna bakarrik da ala?

Beraz*, EZETZ biribil bat "Programa abierto" horri,

«Gala Vasca»

"Pueblo" egunkariak* antolatuta, euskal abeslarien jaialdi bat eskainia* izan da, Deustuko "Casa Vasca"-ko Garden Club dantza tokian.

Abeslariak, honeek izan ziren: Jon Libarona, Naikari orkestakoak, Estitxu ta Andoni. Presentatzailea: Francisco Javier García.

Jaialdi ona, baina mikrofonoek zarrata larregi ateratzen eben.

Gure zorionak antolatzaileei, eta eskari bat: jarraitu daiela bide horretatik, egindakoak hobegotuz, eta oke-rrak zuzenduz.

Bilboko jaiak

Joan dira Bilboko jaiak. Etorri ziren legez joan dira: hotz hotzik, batere berotasunik gabe.

Hauxe da egia: jaialdi honeek, Udaleko* teknokratek eta burokratek egin-go dituen bitartean, hotzak izanen* dira.

Guk behin eta berriro hau eskatzen dogu: Jaialdi honeek antolatzeko, Bilboko folklore elkarte guztiak deituak izan daitezala. Honeek, eta honeexek bakarrik, eman leiskioee jaiet hain beharrezkoa daben saltsa ta herrikoitasuna.

Abestien hitzak

Euskal abeslariak zaindu egin behar ditue kantuen hitzak. Soinu polit bat erabiltzea inportante bada, ez da guxtiago hitzak zaintzea. Euskera txatxar bat erabiltzen badabe, hizkuntzari mesede egin beharrean, kalte egiten deutsoe. Eurak hitz onak imintzeko gai ez badira, doazela euskal poetakana.

XABIER GEREÑO

ARRATIA

Ikastolaren arazoa

Ze z jazoten da Igorreko Ikastolagaz? Joan dan urtean hasi zan, eta, hilabete igaro orduko, zarratu beharra egon zan. Zergatik?

Lekurik ez dagoelako? Zertarako dira, orduan, monjek dauken etxea eta Centro de Enseñanza dalakoa?

Andereñorik ez dagoela? Arratian ba dago euskeraz dakien maistra mordo bat. Zer egiten dabe horreek?

Irakaskintza arloan, Igorren "Instituto" bat imini arren, ez dago dana eginda.

Eta Arratiko beste herrietan zer? Ostoporik haundiena, sarritan, gurasoak euskeraz dakien maistra mordo bat. Ez dauke euskeraren problemarik, ez dira euskeraren balioagaz konturatzen. Arratiko gurasoak, noiz arte holan?

Gainera, Arratiko abadeen aldetik ere* ez dogu arlo honetan ardura larregirik ikusten. Elizarik gehienek lokal ederrak daukez. Zertarako? Gaur egunean, katezismoa euskeraz emateagaz bakarrik, ez dogu uste gure hizkuntza salbatuko dogunik.

ZAMAKOLATARRA

KARRANTZA

Kooperatibagintzan

Karrantzako Harana*, Bizkaiko lurralderik haundienetarikoa, Santandereko muga aldean aurkitzen da. Haran honetan, herrixka mordo bat dago, Udal* bakarra daukelarik. Guztitara 4.500 bizilagun ditu, gehienak baserri lanean edo laborantzan diharduenak. Orain, nekazari kooperatiba bat atontzen ari* dira. Jadanik* ba ditue 400 bat bazkide, eta pentsuentzako almazen eta fabrika haundi bat egiten ari dira.

Abadeak, kooperatibako erlijio kontseilariak

Abaderik gehienak, guztiak ez esatearren, arduratzen dira kooperatiba honekin, eskualde* haretako jendearen etorkizun eta bizitza oinarritu ta sendotu nahiez. Erlijio kontseilari nagusi bezala, Ispilla abade jauna ari* da. Semez markinarra da, eta, direla 8 urte abade egin zanez geroztik, Karrantzan bizi da.

J. A. A.



URRENGO ALEAN

J. AZURMENDI: "Batasunaren kutxa" liburuari krltika

G. ARESTI: "Lizardi Olerkaria"

I. TORRE: "Euskaldungoa"

E U S K A L

Getariko Udalaren ardurak

Gipuzkoako herri honetako Udalak* ez dau onartu izan, eta holan adierazo izan dau, Dirección de Bellas Artes* erakundeak* nahi dauan bezala, Getaria "conjunto histórico artístico" seinalatzea, horrela herriaren haunditze ta eguneratzea tratatuko lizateke ta.

Nafarroako ardi txakurren sariketa

«Txiki» txakurrentzat

Abuztuaren 23-an, Huarte Arakilen (Nafarroan) egin izan zan Nafarroako ardi txakurren sariketan, Lizarragako Zirilo Azkargorta jaunaren Txiki txakurra atera zan nagusi.

Euskaldun txapelak arabiar eta israeldar gudarien buruetan

Tolosako "Elosegi" lantegian egindako txapelak ei da-roez arabiar eta israeldar gudariak. Oraindik oraintsu, 150.000 txapel bidaldu ei dira.

Patata batzearen erakusketa

Arabako Alegrian, patata batzearen erakusketa bat izango da, urriaren 2-an. Arabako eskualde* honetan oso ugari hartzen da ortuari hau.

Tudelako eskualdean hartzen dana

Tudelako eskualdean 2.086 behi dagoz: 648 esnedun, txahalak 2.805. Txerritan: emeak umegintzarako 3.960, gizonteko 16.536. Arditan: urtebeterik beherakoak 15.666, urtebeterik gorakoak 62.000. Oiloak: arrautzegintzan 165.000, oilaskoak 755.000. Koneju edo lapinak: 39.000. Behi esnetan: 8 miloi litro. Okelatan (txahalena): 675.000 kilo. Arrautzetan: 2,3 miloi dozena.

Felix Garcia Olanok Txekoslovakiari buruz

Felix Garcia Olano, deporte orrialdeetako zuzendaria da, Bilboko "La Gaceta del Norte" egunkari* haundian. Baina, izatez, gizarte gaietan da aditua eta arduratua. Orain, Bilboko Athletic futbol ekipoarekin Pragan izan ondoren, lurralde horretako bizitzari buruz argitara eman-go ditu zenbait* artikulu.

Nafarroako Buñuel herrian harri zigorra

Buñuel herria, eta bere ingurukoak, berriro ere harriak ondatu izan ditu, joan dan abuztuaren 29-an. Piper sailak, tomate sailak, artotzak... zeharo ondaturik gelditu dira.

Jose Lacalle Larragari omenaldia Plentzian

Francoren Gobernuan Marinako Ministro izana dan Jose Lacalle jaunari, Plentziako Udalak*, Enrike Mota alkatearen eskutik, "Merituaren Medaila" ezarri eutson, joan dan abuztuaren 30-ean. Aipatutako merituzko egintza horreek, Lacalle jaunak "Plentziako herriari, ta Udalarari bereziki*", egindakoak dira", esan eban alkate jaunak.

Manuel Basasen hitzaldiak Gasteizen

Santiago de Compostelako Unibersidadean irakasle dan Manuel Basas jaunak mintzaldi jakingarri bat eman izan dau Gasteizen, "El crecimiento de la industria siderúrgica española: el predominio del País Vasco" gaiari buruz. Gehienbat, lehengoari buruz aritu* zan, oraingo egoera ikutu barik.

«Agur» aldizkaria ta Euskerazaleak» elkarte

José María Martínez de Retana erdaldun abogaduak Bilbon argitaratzen dauan "Agur" izeneko aldizkaria, "Euskerazaleak" elkarteak Bilbon daukan etxean argitara ematen da, zihurtasun haundiz entzun dogun bezala, "Agur" aldizkariako elkarte horren fitxeroetaz baliatu izan dira, zabalkundea egin ahal izateko; baina ez ei dabe "Euskerazaleak" gandik ezer diru-laguntzarik jaso. Laster batean alde egingo ei dabe etxe horretatik. "Agur" hilerokoa hiru aldiz argitaratu da, eta, ANAITASUNA hau zure eskuetan danelo, laugarren alea kalean izanen* da.

Juan Etxebarria Gangoltiren hitzaldia Gasteizen

"Enseñanza Superior e Investigación" erakundearen* zuzendari nagusia dan Juan Etxebarria bilbotarrak mintzaldi bat eman izan dau Gasteizen, "Keynes en Versalles: la economía en las relaciones económicas internacionales" gaiari lotuaz. Lehenengo Gerrate nagusiaren inguruan Keynes jaunak emandako kontseilu jakintsuei buruz mintzatu zan gehienbat.

«Eclair Pyréné» euskeraren alde

"Eclair Pyrénées" izeneko Frantziako egunkariak*, Euskal Herriari buruz hainbat informazio emanez gainera, euskeraz ere* ba ditu zenbait artikulu.

«Arde Guernica», Vicente Talón jaunaren liburu berria

Editorial San Martinek argitara emanik, azaldu berria dogu "Arde Guernica", Vicente Talón erdal idazlearen liburu berria. Izenburuak dinoanez, Gernika erre ebenekoaren historia antzekoa da. Luis Castresana jaunaren hitzaurrea dakar, eta, beste gauza batzuen artean, hauxe dinosku: "Este libro no gustará ni a los fanáticos tirios ni a los fanáticos troyanos".

Alta Agustín Kardaberazeri omenaldia

Errenderiarrak omenaldi bat gertatzen ari* dira euren herriko semea izan zan Aita Agustín Kardaberaz jakintsuari. Urriaren 18-an izango dira 200 urte, bera hil zala Italian. Gugana heldu diren albisteei jarraituz, Aita Kardaberaz "jesuitatasuna" ospatuko ei da. Eta ez bere euskal "idazletasuna"?

D U N G O A

Kantariak

Abuztuaren 22-an, larunbatez*, "Ez dok Amairu" taldeak Portugaleten (Bizkaian) bere "Baga biga higa" ikuskaria eman eban.

Abuztuaren 23-an, Natxo, Itziar, Oskarbi, Argoitia neba-arrebak, Estitxu, Egurrola, Xabier Lete eta "Enarak" Larraetzuan (Bizkaian).

Atahualpa Yupanqui Argentinako kantari ospetsuaren egiazko izena Héctor Roberto Chavero Aranburu da. Bere ama giputza zan.

Abuztuaren 23-an, Itziar Natxo, Txomin Bengoa eta Joseba Zarraga, Alonsotegin (Bizkaian).

«Garden Club - La Casa Vasca» kafetegian euskal kantarien jaialdia

Abuztuaren 22-an, larunbatez*, Bilboko "Garden Club - La Casa Vasca" kafetegian egin izan da euskal kantarien jaialdi bat, "Udako Euskal Abestien Sariketaren" irabazleei trofeuak emateko. Irabazleak, Bilboko Andoni eta Gernikako Naikari izan dira. Jaialdi horretan, Estitxu eta Libarona egon ziren kantari, Trofeuak eskaintzerakoan*, Faustino Ramos, Bizkaiko "Información y Turismo"-ko ordezkariak esan eban: "Considero que cualquier manifestación como la que hemos presenciado esta noche, es totalmente positiva para el desarrollo de la canción vasca. De ahí el apoyo que de mí han de tener siempre".

Euskal kantariak Arabako Laudion

Arabako Laudion, euskera pixka bat egiten dan herri industriatsuan, Laboa, Lete, Lurdes Iriondo, Natxo eta Itziar egon ziren kantari, abuztuaren 25-ean, gaueko hamar terdietan.

Xabier Lete eta Lurdes Iriondoren oharra

Senar-emazte honeek aditzera eman deuskue, Zornotzako jaialdia joan dan uztailaren* 17-rako iragartzen eben karteletan euren izenak agertu arren, ez Xabierrek ez Lurdesek ez ebela horretarako baimenik ez baietzik eman.

Neska futbol zaleak Bizkaian

Aspaldi honetan, Bizkaiko nesken artean futbol zaletasun handia sortzen ari* da. Ba dira neska futbolarien dozena bat ekipo inguru: "Gorantza" Galdakanon, "Iraultza" Zornotzan, "Kemen" Durangon, "Indar Gazte eta Eduerre Neskatoak" Basaurin, "Ekintza" Zeberion.

Galdakanotarrak izango dira, beharbada, partidurik gehien jokatu dabena. Hona hemen futbolarien izenak: Blanca, Charo, Maria Angeles, Mari Eli, Emili, Maribi, Pili, Eguzkiñe, Amaia Garai, Motrico, Kuiki, Loli, Virginia, Beatriz, Yolanda... Amaia Garai da, jendearen esanez, exitorik handiena izan dauana.

Gehienetan, zerbaitetarako dirua lortzeko izaten dira nesken arteko partidu horreek, nahiz eta, beharbada, deporte bezala ere* gero ta indar gehiago hartzen joan.

Okongo jaiak

Okon, Arabako Bernedo herritxoaren alboan dagoen Santuario bat da. Irailaren* 5-ean izan dira bertako jaiak; eta haizkolariak, harrijasotzaileak, dantzariak, brixka eta mus sariketa, pelota partuduak, sokatira eta bolariak izan dira. Okon aldean, kasikan* Araba guztian bezala, ez da euskerarik egiten. Baina, honako* deporte erakusketak egiten diren tokian, ba dago oinarri bat euskerarekin zaletzeko ere, guk uste.

Kai berria Biarritzen

Turismoagatik hain ezaguna dan Biarritzeko plaia bazterrean, kai edo portu bat egitekotan dira.

«Activités en Pays-Basque» agerkaria

Baionako Komertzio Ganbarak eraturik, "Activités en Pays-Basque" deituriko agerkaria* zabaldu berria da. Eskualde haretako ekonomiaren geroaz mintzatzen da. Bizkai ta Gipuzkoako lantegi haundiekin har-emanetan dala dinoe, euren etorkizuna.

Ignacio Zuluaga pintorearen ehunurteurrena

Irailaren 4-ean mintzaldi bat eman izan dau Eibarren Jose Maria Arozamena jaunak, "Ignacio Zuloaga, el pintor, el hombre" gaiari buruz.

Kantari berriak Ibarren

Abuztuaren 23-an, igandez*, kantari berriak izan ziren Nafarroa Behereko Ibarren: Eñaut Etxemendi, Ellande Larralde, R. Negueloua, Harisputu eta Bñiat Sarasola.

Euskal jaia Osintxun (Bergaran)

Abuztuaren 30-ean, Iñaki Arriaran, Juan C. Garitano, Luzio Urzelai eta "Txairo" bikotea aritu* ziren kantari Osintxun, eguerdiko 12-etan. Iluntzean, "Los Bravos" taldekoak.

Kantarien jaia Zaldibian (Gipuzkoan)

Abuztuaren 29-an, larunbatez*, Lurdes Iriondo, Xabier Lete eta Jesus Aranbarri kantariak jardun eben Zaldibian. Baita Lopategi, Azpillaga, Lasarte eta I. .kao Txiki bertolariek ere.

Mario, Natxo ta Itziar «trikitixa» baten bila

Kantarien landan hirukote ospetsua osotzen dabena kantari honek "trikitixa" baten bila dabilta, euren kantuen lagungarri bezala erabiltzeko. Trikitixa Itziarrek joko leuke, pianozko ikasketak eginak dituaneez gero, soinu joile ere baita*.

TXIKITO



“ASFIXIATZEN DUEN KULTURA”

Garrantzi handiko liburu batekin topatu naiz. Liburu soziologikoa, egoera bat agerrarazten eta aztertzen duena. Bere izena, «Asphyxiant culture» (Jean Dubuffet, 1968, Jean-Jacques Pauvert, Paris).

Kulturaz inguraturik bizi gara; eta helduko da, kultura horrek asfixiatu, itoko gaituen unea. Burua izen handiz beteta dadukagu. Gure gaurko esana, biharko esan-beharrak, azken esan genuena izen batzuekin justifikatuta dadukagu, eta izen hoi mendean bizi gara. Ez gara gure buruen jabe. Ez gara «pentsatzeko ahalmena duten» Aristotelesen animaliak. Gure buruen jabe Marx edo Kristo, Fidel edo Sartre, azkeneko idazle edo abeslaria, azkenengo iraultzatxoek zuzendariak dira. Pentsatzea ahaztu egin zaigu.

Ezagutu nuen, egunean hamar-hamabi ordu irakurtzen iragaten zituen euskaldun mutil jator bat. Oso ondo zekitzan azken teoria guztiak; oso ondo ezagutzen, idazle honek beste idazle hari eginkako kritikak; baina ez zekiena, ez dakiguna, gure buruen kritika egitea da. Hitz batean eta behin betiko: Ez dakigula pertsonalki pentsatzen. Eta hau, gure herrian, gure min guztietako Euskal Herrian, sarritan gertatzen zaigu. Ez dakigu pentsatzen, ez dugu pentsatzen, ez dugu pentsatzerik nahi. Eskema oso logikoak ditugu buruan (bat, bi, eta ondorena), eta ez dago guran eskema hoiak kritikatu dituen indarririk.

Itotzen ari gara. Garaudy, Fichter, Lezama, Weiss, Mitxelena, Zalaña... Interesgarria zaigu, nola ez, gizon hauek diotena

ezagutzea; baina interesgarriagoa lekikegu, gizon hauek esandakoaz ordu bete pentsatzen ihardukitzea. Gure herriko zenbait gauzek ez lukete xentimorik balioko.

«Garai batean erlijioak zuen-tokia betetzen ari zaigu kultura. Kulturak ere ba ditu bere apaizak, bere profetak, santuak, bere seminario eta gotzainak. Egun, diktadore bat agintera heltzen denean, ez zaigu gotzain batekin agertzen, Nobel saria irabazi duen jakintsu batekin baizik. Aberats batek, herriari barkatzeko eskatu nahi dionean, ez du gehiago eliza bat eraikiko, museo bat baino. Egun, kultura dugu herrien opio bihurtu zaiguna».

Liburu honen egileak aski agerrarazten dauku gaurko egoera. Galderak errazak dira: Zer falta zaigu, benetako kultura lortzeko? Zer falta zaio gure euskal kulturari, gure euskal kultura behartsuari, benetako kultura izan dadin? Nere ustez, kreatzea da bide bakarra. Baina, zoritxarrenean, gure herriak oso kreatzaile gutti ditu. Teoria batzuen sareetan lito gara denok, eta ez dugu sare hauetaz pentsatzeko ahalmenik.

Pertsonalki pentsatzen ikasi behar dugu, gelak ez baitira lo egiteko bakarrik eginak izan. Hona hemen, nerekin, gure hauzi askoren kakoa.

ANJEL LERTXUNDI

“AMERIKAKO SUIZA”

Uruguay ezin dalteke bazter Hego Amerikaren egoeratik; baina, bestalde, ezin ditzakegu ahazt errepublikak hartako kondizio bereziak. «Amerikako Suiza» deritza Uruguayri Europako zenbait mediotan, eta, egia esan, duela hamar urteko egoera ikusirik, izen hori egokia zitzaien. Ekonomiako zenbait arazotan finkatzen zen harako «Amerikako Suiza» izena. Izan ere, Suizan bezala, beste estatu guztietatik ihes egindako kapitalek hantxe zuten beren etxea, ekonomia sendo baten laguntzarekin oso establea baitzen Uruguayko txanpona. Gero ere, ba zegoen politikazko arazo bat nahiko inportantea: Hego Amerikako nazio guztietatik. Uruguay zen diktadura klarki agerrarazi ez zuen estatu bakarra.

Baina esandako guzti honek 1960-rarte balio du, azken dekada honetan gauzak gaizkitu baitzaizkio «Amerikako Suiza» honi. 1963-an egindako populazio inkestak zifra interesgarri agerrarazi zituen. Bi milioi ta erdi bizilagunetatik milioi bat Montevideoko departamenduan bizi da; beste departamenduetan km.² bakoitzeko pertsona batetik bostera bizi dira, hots populazio osoaren 8%. Eta hau oso inportantea da, nazio honen aberastasuna —batez ere 1957-tik, dibisa azoka bezala Montevideok nagusitasuna galdu zuen urtetik— artilean eta haragian finkatzen dela ikusirik.

Azken urte hauetan, ekonomiako egoera larritu egin da. Pesoa kotizazioz jaitsi da, haragiaren eta beste oinarriko gaien salketak gutitu egin dira nazio arteko merkatuan, paroa gehitu, estatuaren zorrak handitu. Hitz batez, gerra mundialaren on-

doren, bere eginkizuna ondo bete zuen-sistimak ez du orain balio; baina lur-jabeen oligarkia indartsua ez dago prest, behar diren aldaketak egiteko ez du zorteko.

Egoera honen aurrean, langileen eta burgesia liberalaren etsipena nabaritzen da; bi alderdi nagusien (gorrien eta zurien) promesak ez dira behin ere betetzen, eta, egia esan, oligarkia batek maneiatzen ditu demokraziaren gorabeherak.

Alderdi komunista, dekada honen hasieran aldaketaren aldeko burrukaren «leader» izanik ere, erabat bazterturik aurkitzen da, oraingo honetan sortzen ari den gerran.

Herriaren haserreak huelga ta gatazka nahikoa sorrarazi du; baina gobernua ez da aldketa bidean jarri eta errepresioa gogortzen ari da, «medidas prontas de seguridad» enplegatuz. Honek, jakina, burruka handitu egin du eta ezkertiarren ekintza gogortu ere bai; hala sortu da M.L.N. (Movimiento de Liberación Nacional), «tupamaros» izenarekin ezagutzen dena. Oligarkia bakarrik atakutzen zuen mugimendu honek bere hasieran. Baina errepresioa gehitu denez, eta batez ere Estatu Batuen ekintza nabarmen egin denez, «tupamaroak» polizia ta oligarkiarekin aurkako gerra batean ihardukitzen hasi dira.

Azken bolada honetako gertaerak aztertzeke, ez dugu ahaztu behar, Uruguayan ari dena, sistema berri bat nahi dutenen eta balio ez duen sistema bat mantentzen dutenen arteko gerra bat dela.

ANTON SANTAMARIA

IZTURIZKO HAITZULOAK

Koba zulo horren ondoan, barrura sartzeko txartela erosi behar den toki berean hain zuzen, museo tiki bat dago, bertan aintzinako gizonen eskulanak direla. Zaldi asko, harriz eta hezurrez eginda, katuak, hagin zulodunak, paparrean eramateko modukoak (orain dominak legez), esku-haizkora, harpoi, gezi, jostorrazak, azkonak, makilak, harri landuak eta abar ikusten dira bertan, eta baita, Bizkaiko Santimamiren bezala, bisonte batzuk ere.

Haitzuloan, barruan, arroka batean sukarriz eginda, ba dago beste irudi talde bat, bata bestearen gainean jarrita. Baina irudiz gain, haitzuloak ba du beste ederrik asko. Sarrerak oso garestiak izan arren (hirurogei pezeta inguru), merezi du ikustea. Bizkaiko Santimaminek ba ditu horrelako asko, baina ez, inondik ere, hain gauza politikak.

Urak, denboratetik zehar eraman duen kare-gatzaz, sabaian harrizko ziztor ugari moldatu ditu, baserriko ezkaratzean txorizoak legez, dindilizka direnak. Harrizko habetxook, batzuetan, elkartu egiten dira eta pentsa ezinezko figurak egiten dituzte:

kolumnak, Imajinak, tenplo zaharrak, oriente aldeko etxeak, Jalotze gisako Betlehemeko Inguruak, Buda lodikote bat, Lourdesko Ama Birjina Bernardette ondoan duela, harrizko habiak...

Ikusgarrienak, baina, harriak denboraz egin dituen kortina argi batzuk dira, argia beste aldean jarrita ezin politago ikus daitezkeenak. Orma batzuetan, gainera, ur-jauzi batzuk bailira beajako harrizko irudi distiratsuak daude, eta baita beste apaingarri asko ere. Batzuetan urak harrizko «azalreak» egiten ditu, han ondo ikusten den moduan.

Koba zulo hartako gidaria euskaldun nafar jator bat zen; eta ederki azaltzen zeukun, frantses turistekin ez zegoenean, guzti hura zer zen euskeraz; gainera, oso erraz aditzeko moduko euskera batean.

Benetan ikusgarri haitzulo biok: bai Izturizkoa eta balsa Otsozelaikoa ere. Askotan Mallorcara joaten gara Drach-eko kobak ikustera, eta ez dakigu zer dugun Euskal Herrian bertan. Era edukiz gero, zoazte Izturizko haitzuloak ikustera, ez duzue damurik ekarriko ta.

XABIER KINTANA

EGUZKI ALDEKO GERRA

Gure garalan inoiz baino hobeto dakigu, gerrak interes batzuen menpean sortu eta egiten direla. Jendeak ondo daki, idealaren azpian hainbat gauza daudela eta funtsean haiek dena mugitzen dutela. Horra hor, esenplu bezala, zenbat jendek ihes egiten duen Estatu Batuetatik, Vietnamgo gerrara ez joatearren. Israeldarrak eta arabetarrak ere nekea sumatzen hasi dira, eta, antza denez, «Rogers plana» dela ta, argiago ikusiko dute, USA ta URSS-en medio bat bakarrik direla.

Gerra honen gehiegi zabaltze eta haunditzeaz ez dutela ezer lortzen konturatu direnean, bi boteretsu horiek «bake» bideak irekitzen ari dira, «Rogers planaren» bitartez.

Orain egun batzuk, estudianteei esaten zien Moshe Dayanek: «Ezin gintezke gerra honetan bakarrik gelditi; ez gara hain boteretsuak, eta, lagunak gordetzearren, konpromisu batzuk onartu behar ditugu».

Israel, gerra aurretik, krisi ekonomiko baten barruan zegoen; eta gerra, soluzio bat izan zen. Gerrak, industria berriak sorrarazteko bidea ekarri zuen eta bultzada bat eman zion ekonomia ahulari*.

Sei eguneko gerra ondoren, Israeldarrek uste zuten, gerrak soluzio militar bat ukanen* zuela. Esaten zuten, denbora laguntza bat izango zela, Egipto gaizki zegoela eta ezin zezakeela gehiegi iraun. Baina gauzak ez dira hain errazak izan. Egiptok Rusiaren aldetik laguntza gogorra ukan* du, eta laguntza honek irauteko posibilitadeak eman dizkio.

Israelgo ekonomia ez da hain ondo, eta gerra astunegi ta luzeegi bihurtu zaio, eta «bake» hau beharrezko du.

Egiptok ezin gauza haundirik esan, zeren, gerran iraun badu, Rusiari esker izan da. Jordaniak ere plan hau onartzen du.

Iraqek eta Palestinoek ez dute ezer ateratzen, eta gerrari jarraitzera doaz, «bake» horretan ez baltituzte* kontuan hartu.

Dena dela, Palestinoak, naziorik gabe, batasunik gabe, herri bezala, beti bezain* zapalduak gelditzen dira. Berak dira orain arabetar zapaldu guztien errepresentazioa; gerra ez zale bukatu*, eta «bake» horri oposizioirik gogorrena egiten diote. Ez ote dituzte zapalduak utziko «bakearen» alde daudenek: adibidez, Egipto, Israel, Jordania eta Libiakoek?

AMAIA LASA

GAZTEAK UMETZAT EZ HAR!

Gazteak dira gure euskalduntasunerako arriskurik haundiena, «sorgin ihiztari»* batzuen iritziz behintzat. Gure gaitzik haundiena eta periltsuena.

Nik ez dut uste, berriz, gaurko kinka* «conflicto generacional» delako bat datekeenik*. Gazte ta zaharren arteko burrukaz kanpo, ba daude, gaurko egoeran, beste istilu-kausa asko, zibilizazioaren salto edo mutazio batean garenez gero.

Gazte izatea bekatu izango ote da? Ba dirudi, astakeria hori ez duela inork esaten; baina jansenista batzuek baldintza bat jarri nahi omen* diete «zintzo» direlako gazteei: alegia, gazteen pentsaera, izaera ta egiera, zaharren pentsaera, izaera ta egiera berbera izan daitezela.

Libiako esaera zahar batek honako hau dio: «Putzu-iturritik edan, eta zure tokia besteak utz».

Gazteak umetzat hartuko ditugu? Ez al dugu ikusten, giza-ki helduak direla, eta beren xanda aspaldidanik ailegatu dela?

Matematikaren historian famatua den «Essai sur les coniques» liburua, hamazazpi urte zituela argitaratu zuen Pascal jakintsuak. Hamazazpi urte, laster esaten da gero!

Hogeitabi urte zituen Alexandro Haundiak, Darlo erregearen gaineko garaitzapen izugarria lortu zuenean. Bonaparte Jeneralak, Italiako gerran, 28 urte zituen, Rivoli, Arcole ta beste toki askotako bataila oroigarriak irabazi zituen.

Eta hain urrutira joan beharrik gabe, nahiz eta beste maila batekoa izan, hor dugu Sabinoren esenplua, hogeitabi urteko zelaririk idatzi baitzuen* bere «Gramática elemental del euskera vizcaíno» famatu hura. «Ume bat» zen eta gainera euskaldun berria, Lasa Kalonjearen* terminologian bigarren mailako euskaldun zela esan nahi duena.

Ez gaitzezen izan Cervantesen baratzainaren* zakurra bezalako. Zakur hark ez zion beste inori jaten uzten berak jaten ez zuena.

KARLOS SANTAMARIA

“WOODSTOCK” FILMEA ETA “HIPPIEN” MUGIMENDUA

«Woodstock» filmeak adierazi daukun Idela zurlitu eta garbitzeko beharrean aurkitzen garela uste dut; alegia*, filmeak berez begien aurrean azaldu daukun mugimendua, gaia eta situazioa ez ote dago zeharo gezurtua, edota, komenientziak eraginda, nola hala osotua?

Galdera honi erantzunez gero, gure kritika nahiko biribilduta utz genezake, filmearen gaia edo tematika hemen aurkitzen balta* kondentsaturik.

Teknika aldetik, laudorio guztiak merezi ditu. Musika eta muntaketa* apartekoak dira. Muntaketa aldetik, lan haundia egin badute ere, teknika ximple xamar batez ballatu dira, nahiz eta posibilitade haundiak ukan*; alegia, zortzi kamara erabilak izan dira, hogei ta lau orduko filmazioa ardietsiz*. Musika aldetik ere, materiala sekulakoa izan da; eta pentsa ezineko garbitasun eta kalidadea lortu dute, grabazioa direktoki hartua izan arren.

Baina sar gaitzezen zorrotzago.

—Zuk zer diozu «Woodstock» filmeaz?

—Zoragarria musikaren garbitasuna, eta abeslarien kalidadea batez ere.

Pentsa dezagun zer ikusten dugun «elementu komun» be-

zala, Hippy mugimenduen eta gazte modernoek mugimenduen artean. Argi dago: Musika (Rock, Folk, Jazz, eta abar).

Filmeak, Hippien eratu dela dirudi; eta Hippy ambientearen sartzen zaituztelakoan zaude, Hippy mugimendua kontsumoko gizaratean integratzeko ahaleginen instrumentu bihurturik.

Denok dakigunez, Hippiak taldeka dabilta eta jende asko mugitzen dute; orduan, komertzialismo aldetik, sekulako posibilitadeak daude. Bostehun mila pertsona biltzen* dira. Denak Hippiak omen* dira; baina, hona antagonismo argia, Hippy hauek 500 pezeta ordaintzen dituzte eta organizazioak prestatutako janari, edari eta abantaila guztietaz baliatzen dira. Hitz batean, Hippy ideologia eta praktika zeharo gezurtatzen dira. Abeslariak ere sekulako dirutza eskuratu dute; filmearen produktoreak zer esanik ez: pentsa ezineko negozioa. Eta egia garbiena: honelako festival eta filmeek, beren estruktura, propaganda eta esan nahiarekin, Hippy mugimendua kontsumoko gizaratean integratzen dute.

Beraz*, «Woodstock»-en Idela eta esan nahiarik tamalgarri* deritzat, «musika, bakea eta maitasuna» hitzak instrumentu bezala darabiltzalako.

MIKEL MENDIZABAL

ADIZTEGIA

(Sei ta zazpigarren orrialdeotan agertzen diren zenbait aditz forma, bizkaieraz adieraziak)

daude, dagoz.
dauku, deusku.
deritza, deritxo.
diote, deutsee.
dio, deutso.
diote, deutsoe.

diote, dinoe.
diozu, dinozu.
ditzakegu, daikeguz.
dizkio, deutsoz.
genezake, geinke.
lekikegu, leitekigu.

lukete, leukeo.
zale, jake.
zaigu, jaku.
zalo, jako.
zalzkio, jakoz.
zaude, zagoz.

zeukun, euskun.
zezakeen, eiken.
zlen, eutsen.
zlon, eutson.
zitzaión, jakon.

AMAREN METODUA

Oraindik gogoratzen naiz, eta nekez ahaztuko zait, lehen mailako ikasketetan niharduela eta etxerako lanak ematen zeuzkidatela, nola neure amak erdal aditza ikas arazten zeutan.

Ez nedukan nik, sasoi hartan, era guzti haiek gogoan hartzerik; baina amak, pazientzia ikaragarriaz, honetan ere beste edozenbat arazotan legez, bidea erakutsi zeutan. Berari etsi etsian jaramon eginez, lehenengo, aditz denbora edo aldi bakoitza eskola liburuan non zegoen ikasi nuen, eta gero zeintzuk era zeuden leku bakoitzean. Honela ikasi nuen, orriaren hasieran eta ezker aldean "Presente de Indicativo" delakoa zegoela, haren eskuinean* "Pretérito Perfecto", azpian "Pretérito Imperfecto", eta abar. Zer esan gura zuten eta zergatik ez nekien; baina itaun* orduko ba nekien, goikoa ala behekoa, ezker ala eskuinekoa, zein zen erantzun behar nuena; eta horixe zen jakitekoa, ez besterik.

Ez dakit nik neure amaren "sistema" hark psikologiaren aldetik oinarrikerik zedukan ala ez, eta zenbaterainoko komenigarria izan zitekeen. Izan ere, nahikoa zatekeen* liburua aldatzea, neure jakintza guztia hutsean gelditzeko. Baina, hala ta guztiz ere, metodo bat zen, ona edo xarra, baina metodoa, beste edozein izan zitekeen moduan; eta metodoaren balioa edo praktikotasuna bere ondorioetatik neurtzen da, bere ondorioen arauera* hain zuzen. Eta ezin uka, nerekin* behintzat, amaren sistema hura onena, beharbada ezin bestekoa, zela.

Ez naiz ni logikaren etsai*, ezta guttiagorik ere. Baina sarri nere amaren metodo "xelebre" haren falta haundia somatzen dut gure artean, "nola" den aztertzea askoz ere praktikoagoa izanik, amorru haundiz ibiltzen baikara* "zergatik" den ikertzen*. Edozeri buruz, "zergatik" bota ohi dugu aurretik, hiru edo lau urteko umeak bagina legetxe*. Ez dagozkigun hamaikatxo buruhauste hartzen ditugu gure gain. Ez ote dugu lagatzeko ordua? Laga dezagun, bada, behingoan "zergatik" zorionekoa eta lot gakizkion "nola" praktikoari.

Oraintsu argitaratu berri den liburu bat aipa genezake adigarri, hau da, BATASUNAREN KUTXA. Xarra edo ona, berdin zaigu, haren ontasuna judikatzeke garaia oraingoz heldu ez baita*; baina metodo bat da, eta ez da berau gutti. Edozein metodok ukan* ohi dituen abantailekin, gainera; irakasle nahiz ikaslearentzat bide metodotsuek abantaila* izugarriak baitituzte*.

Baina jarraiki dezagun aurrera, amak erakutsi zeutan sistimarekin, metodo hutsa ezezik, beste zertxobait osagarritzat ba zedukan eta: hots*, "bista", begien zeregina nagusia baita*. Esate baterako, nik neuk neure begiez aditzaren aldi bakoitzaren lekua eta erak ikusi beharrean, neure amak esan baleuzkit, hain erraz ikasiko ote nituzke? Ez, eta hamaika bider ez, mila azalpen eman baleuzkit ere. Ez baitago norberak ikustea lakorik. Inoren esanak, norberak ikusteke*, beti daduka badaezpadako* izpiren bat. Tomas Santuarena: "Zer ikus, hura sinets".

Honetan har dezagun lehenengo adigarria berriro ere, BATASUNAREN KUTXA, alegia*. Nork uka dezake, liburu horretan irakurri ahal dugun edozenbat formari gezurrezko itxura deritzakegula? Enplastoak balira bezala. "Hum... honek behintzat ez daduka benetako kutsurik; asmazio hutsa ez ote da? Onenean ere, liburu zaharretatik galbahean hartutako erak izan daitezke; baina ba ote da benetan, horrela berba egin ohi duen herririk?" Honelako kezkek etortzen zaizkigu. Kezka biziak, bidezkoak, giza-legezkoak.

Hilabete pasatua da, Nafarroan egon nintzela. Nere arreba, gure senar-emazteak eta laurok Baztanera joanak ginen, handik ipar aldera iragateko* asmotan; eta hantxe, inguru ikusgarri haietan, Añamendiko ipar nahiz hego hegaletan, badaezpadako* hitz eta esaera askotxo egiaztatzeke aukera ukan* genuen. Huraxe pozal "Hau, hori eta bestea egia biribilak dituk", geniotsan* elkarri, barteko ametsak egia bihurtuko bailiren, Harriturik ginen, entzun eta entzun aspertzeke*, noiz itzain edo baserritar bat aurkituko, berarekin berriketan egiteko.

Beharbada, hau guzti hau askorentzat gauza jakinekora izan liteke. "Hura lelokeria, haraino joan beharra", esango daukute. Era berean, Ameriketara joan behar ote dugu, han dagoela sinesteko? Ez, egiaz ez; baina, oster* ere, joan ez den inork ezin esan han ez dagoenik.

Azkenik, ama, Nafarroa eta herri berbetaz ari* garenez, eta herri edo amaren hizkuntza modan bide* dagoenez, hona hemen Zugarramurditar gazte lerdin batekin edukitako* elkarrizketa. Heldu ginen herriko plazara. Herriak lotan zirudien; ez bide* zegoen inor. Halako batean, ate batetik hamabost urte inguruko gazte bat ateratzen zen. Begi urdin eta ile argi argiduna, turista horietako bat bailitzen. Haratu nintzen, galdetzen niolarik (guztia hitzez hitz ez bada ere):

—Arratsaldeon.

—... (buruaz agurtu ninduen).

—Zugarramurdiko lezea non da?

—Belaxe duzu. Aitzineko bide hortatik xuxen xuxen behera. Berrehunen bat metrora bidegurutze bat duzu. Bata eskuin* aldekoa; UTZ ZAZU BERE GISARA. Hartzu (?) ezkerrekoa, Bertan zara.

Hauxe hau esateko modua. Ez ote zen errazago, lehenengo ezkerrekoa hartzeko esatea? Poeta samarra bide* zen gure gaztea. Baina, hala ta guztiz ere, Lizardik berak ere ez zukeen halakorik esango, berba egiterakoan. Jakina, Lizardi eta Zugarramurditarra bi oiloren xitak ditugu. Bakoitza bere amaren semea da, eta ama bakoitzak bere hizkuntza eta... bere metodoa.

LUIS A. ARANBERRI

ZABALDU ANAITASUNA
EMAIGUZUZ ZURE ERITZIAK

IRLANDA

Adriano IV. Aita Santuak Inghaterrako Enrique II-nari Irlandako "Jaun" titulua eman zion. Harrezkero, burruka luze ta latz bat da irlandar eta ingeles arteko har-eman ezaguna, 1542-an, Eirique VIII-nak bere makilapean batu zituen Irlanda ta Inghaterra. Isabel I-ren denboran, hiru matxinada gogor biztu ziren; baina ingeles gudarosteak* odoletan ito zituen. 1641-ean berriro jaiki ziren irlandarrak, eta 600.000 bizi kostatu zen azio hau. Cromwell-ek gidatutako zapalketa basatiak luzarorako pozoindu* zituen Irlanda ta Britainia Handiaren arteko zer-ikusiak. XVIII-garren mendean* ingeles oinperatzaileek, irlandar katolikoei legezko eskubide guztiak kentzen zizkieten zigor-legeak onartuaz, beren zapalketa bidean ordurarteko marka guztiak hautsi zituzten, 1801-ean izenpetu zen, Britainia Handi ta Irlandako Erreinu Batua sortu zuen "Act of Union". 1916-an, "Sinn Fein" Alderdi abertzalea jaikitzen da; baina berehala* menperatua da. Lehen Gudu Handiaren bukaeran, irlandar abertzaleasunak, Estatu Batuetako Wilson lehendakariaren herri xipien* gobernu-eskubidearen dotrina bere egini, sublebazio berri bat antolatu zuen.

Azkenez, 1921-eko abenduan, solasketa* luzeen ondoren, Irlanda Estatu Aske bihurtu zen. Leinster, Munster eta Connaught probintziak eta Ulster probintziako hiru kondaduk (guztitar 26 kondaduk) osatzen zuten Hego Irlanda; hiriburu, Dublin. Ulster-eko beste sei kondaduek Ipar Irlanda deritzen erakunde* politikoa taxutu zuten; hiriburu, Belfast.

Irlandako Estatu Askean, De Valeraren administrazioan, konstituzio berri bat atera zen 1937-an, Eire sortuaz. Eireren nagusigo ta askatasuna garbi jarri ziren, baina Britainiar Elkargoaren barrenean. Bigarren Gudu Handian Irlandak (Eirek) neutralidadera jo zuen, eta 1949-ko apirilaren 18-an Errepublikak bihurtu zen, Commonwealth-etik zeharo bananduta.

1921-an Hego Irlandak askatasuna lortzen duenean, Ipar Irlandan Belfasteko Parlamentuak, gehienak protestanteak izanik, askatasunari uko eginaz, Erreinu Batuen zati bezala jarraitzea erabakitzen du. Kontuan eduki* behar da, protestanterik gehienak jatorriz ingelesak eta eskoziarrak direla, atzerritarrak leinuz*, hau da, "derecho de conquista"-z baliatuta, irlandarren lurak harapatu ta banandu zituzten herbestetar lapurrak.

Britainia Handi ta Ipar Irlandaren arteko har-emanak 1921-eko "Government of Ireland Act" delakoak neurtzen ditu, Ipar Irlandari Erreinu Batuen barrenean autonomia zerbait emanaz. Londresko Gobernuak maneiatzen du atzerri, defentsa ta ekonomiazko politika. Gaurkoz behintzat, Ipar Irlanda Errejinaren eta Erreinu Batuko lurraldeen zati bat da, 1949-ko "Ireland Act" agiriaren* arauera*. "Status" federal berezi bat du Erreinu Batuen barrenean.

Ipar Irlandako jazoera serioak protestante ta katoliko arteko burruka zaharren ondorio bat direla esan izan da, erlijio-gudu baten arriskua azalduaz nahiz problemaren sustraia ezkatatuaz. Eskubide zibil huts batzuen hauzia dela hemen diskutitzen dena, ez da egia osoa.

Gaineko zurrumbilo guztien azpitik egiaz eta benetan agiri dena, klase arteko burruka gordin bat da eta klase arteko zapalketa honekin batera eta zapalketa hau dela ta, nazio-problema bat da, biak situazio bakar baten agerpen bi direlarik.

Katolikoak (irlandarrak) sistematikoki diskriminatua izan dira protestanteen (anglosajoi) gantik. Diskriminazio hau politika, ekonomia ta gizarte arazoetan argi ikusten da: lan eta etxe-bizitzaren arloan, eta hauteskundeetan*, ez baita* ezagutzen "gizon bat boto bat". Katoliko bakar batek ez du oraindik aulkirik lortu Ulster-eko gobernu autonomoan; lan espezializatu gabeak katolikoentzat gelditu izan dira gehienbat, eta lan gabetasun indizerik handiena katolikoaren nabari* da.

Klase arteko burruka honetan, nahiz eta sinplifikazioak beti eduki karikaturation arriskua, alde batetik, protestanteak dira zapaltzaile eta katolikoak zapalduak; eta bestetik, esan bezala, protestanteak anglosajoiak dira jatorriz eta katolikoak irlandarrak. Hona hemen nazio-problema. Sakonean jokatzaren dena Ipar Irlandaren askatasuna da, edota, Erreinu Batuekiko kateak hautsita, Ipar Irlanda Hego

KRITIKA BAT

Gauza jakina, ZERUKO ARGIA astekari famatuan gertatzen dena. Gaurkoz ez dut, argitaratzen diren idazlanen gaitasunari buruzko kritikarik eginen*, erabiltzen duten idazkerarena baino.

Hemen, zorigaitzez, euskera nahastuan edo antzeko zerbaitean idatzi ohi da, zenbait salbuespen* kenduz gero. Nolanahi ere, ugarien agiri den euskalkia gipuzkera da; hauxe da nagusien dagoena.

Hau ikusirik, tamalgarría zaigu aitortzea, Euskaltzaindiak emanikako araudien* gehienaz ez dela batere axolarik* egiten.

Orain bihoa neure galdera bat, ZERUKO ARGIA astero hori Gipuzkoa bakarerrako al da? Ala Euskal Herri osorako? Gipuzkoa herrialderako* bakarrik balitz, bidezkoa litzaiket irudituko jokabide hori. Dena dela, gure astekari hau, gainerakoak bezala, ez dugu Euskal Herriaren zati batentzako bakarrik nahi, herri osorako baizik.

Zertarako dugu, orain berrogei ta hamar urte inguru gutti gorabehera sortu zen Euskaltzaindia? Euskaltzain jakintsu batzuk euskera eder eta garbi batez mintzo daitezten? Beren hitzaldietan euskera akademiko batean egin dezaten? Daitekeena da, baina ez da hori inolaz ere haien egiteko behinena, printzipalena, beste hau baino: egiten duten bezala, euskera zabaldu, ongi idatzi eta hitz egiteko oinarri eta araudiak* eman, gero herriak eta idazleek onar eta bere ditzaten.

Beraz*, ez dut ontzat hartzen zenbait idazleren burugogorkeria, beren gogoetan finkatu eta haietarik ateratzen ez jakitea, are* gehiago beren arrazoiak funtsezkoak ez baldin badira. Gipuzkera hutsean hitz egin eta idazteari, gehienetan behintzat, ez deritzat beti jokabide zuzena denik. Eskerrak, honetan irabaztekoa daramagula, Hain zuzen ere, euskal idazle gazterik gehienek batasunera zuzenki jotzen dute, zaharrek baino hobeki ikusten baitute batasunaren premia, azkeneko hauek bezala begietakoen beharrik ukan* gabe. Horrela, azken aspaldi honetan gazteok argitaratu dituzten liburu berriak irakurri ahal izango ditugu mugaz alde bateko eta besteko anaiok, ahalegin handirik egin gabe.

Zorionez, ba dira hemengo aldean zenbait aldizkari euskera batuan egiten dutenak; esaterako: JAKIN, ANAITASUNA, eta abar. Nahiz eta azkeneko honek, sarritan, gehienetan, bizkaierazko aditza erabili; eta ulertzekoa da hola izatea, batasunaren arlorik zailena* aditzarena baita*. Gainerako erregela eta oinarriak, berriz, ondo gordetzen ditu. Lehenagoko ANAITASUNA ez nuen ezagutu nik; baina bai pizka bat berriro kaleratu dena, eta ia alferrik da esatea gero ta atseginagoa zaidala.

Ikaspide ederrik hartu nahi duenak, har dezala azkeneko hauetatik.

GASTEIZKO BAT

Irlandarekin lotzea, horrela Irlanda osoaren batasuna lortuaz. Bestela, zertara dator Ian Paisley protestante estremisten buruzagiak dioena?: "Protestanteok ezin dugu onartu, Ulster Vaticanoaren ordenak itsuki obeditzen dituen Irlandako Errepublikarekin batzea. Ipar Irlandako Gobernuak mugimendu separatista ta katolikoen probokazioak moztzen ez baditu, gudu zibila ezin eragotzi izango da. Katoliko gaizkileok Dublineko Irlandara begiak itzulita daude".

Londresko Parlamentuan diputatu den Gerard Fitt katolikoak, ostera*, hau jakin erazi du: "Irlanda geografiaz eta politikaz berezko batasun bat da. Bi zatitan banatzean, ingelesek gizadiaren aurkako krimen bat egin zuten, eta Irlanda batuta ta atzerriak jarritako kateetatik aske ikusi gabe hiltzeko itzaropenik ez dut".

Gauzak honela, Ian Paisley britainiar Parlamenturako aukeratua izan da, eta Bernadette Devlin ere bai; baina hau sei hilabeterako gartzelaratu dute (laster beteko du bere kondena), orain urte ta erdiko gertaeretan parte hartu zuela ta. Askatasunaren prezioetariko bat giltzapea da.

MUNIATEGI

ADIZTEGIA

(Zortzi ta bederatzigarren orrialdeotan agertzen diren zenbait aditz forma, bizkaieraz adieraziak)

baleuzkit, baleustaz.
bihoa, beioa.
daduka, dauka.
daramagu, daroagu.
daude, dagoz.

daukute, deuskue.
deritza, deritxo.
dezake, daike.
dezan, daian.
dezaten, daien.

ditzaten, dalezan.
gakizklon, gaklozen.
genezake, gelnko.
nedukan, neukan.
nion, neutson.

zaigu, jaku.
zait, jat.
zedukan, eukan.
zeuden, egozen.
zeutan, eustan.

zeuzkidaten, eustezen.
zion, eutson.
zitekoen, eiteken.
zizkleten, eutseezan.
zukeen, eukon.

JOAN MIRANDE: **HAUR BESOETAKOA**, LUR.

Gaurko hau literatur-kritika bat izateko da. Beraz, literaturarekin eta liburuarekin berarekin zer-ikusirik ez duen gauzarik, ez dut hemen ukituko*. Alde batera utziko ditut, beraz, idazlearen pertsona bera eta beraren pentsa-moldea; haren gainean harrotutako esamesak*, hitz-erdiak eta uste ustelak. Bakarrrik kritikaren hasieran, zenbait* berri emanen dut Mirandez, irakurlea, liburuaren gainean juzgu bat emate-orduan, sufizlente informatuta egon dadin.

Guatemalan «Euzko-Gogoa» euskal aldizkaria argitaratzen hasi zenean, harren orrialdeetan zenbait eskritore berrik parte hartu zuten; eta horregatik ederki esan liteke, errebista horrekin batera, euskal belaunaldi* bat sortu zela: Guatemalako belaunaldia. Izen batzuk aipatuko ditut: Alvarez, San Martin, Aurre, Etxaide, Krutwig, Ierro hauk firmatzen ditudana, Peilen, Mirande... Orduko denboran ez zen hau azkena izan, puntarengoa baizik. Eta ia guztiak eskola diferentetakoak izanarren (batzuek eskola kreatu zuten gero, besteek ez), denak elkarrekin lotzen zituen lokarri eta juntagailu bat ba zegoen, haien deskonformitatea, aurretikako moldeak apurtu nahia, bide berriak bilatu nahi izatea...

Guatemalakook ez dugu inoiz Guatemaako lurrik zapaldu; gure oinok itsasoaren honandikoan ongi finkaturik eduki* ditugu. Mirande Parisen jaio zen, eta orduandian han bizi izan da; hala eta guztiz ere, Mirande ez da euskaldun berria, euskeraz xipitandian jakin du, haren gurasoak Zuberoko euskaldunak izan baitziren, eta Parisko kale luze eta arrotzaren erdian bere euskalduntasunari eutsi eta ekin zituelako.

Hemen aipatzeko nituen nolako kontra-karrak eta atakeak pairatu* behar ukan* zituen Mirandek zenbait* euskaldun eta sasi-euskaldun pentsa-molde mehar* eta laburrekoren intentzio gaiztotik. Hobe isiltzen ditut. Baina ostrazismo eta debekatze tirano hartatik, haren zenbait liburu eta idazlan geratu ziren argitaratu gabe, haien artean orain LUR editorialeak euskal jentartera ateratzen duen gaurko nobela labor hau, edo Mirandek berak dioen bezala, ipuin-berri hau.

Nobela honek, zenbait puntutan, gogora ekartzen dauku denbora bateko Lolita famatu hura. Honekin esanda dadukagu nobelaren gaia zein den; eta erraz konprenitzen da, euskaldun moralista zaharrek, hain eskandalo haundia harturik, bere bezetimendak urratu eta bilo-bizarrak hautsezatu zituztela. Segurantzian gaude, gaur egunean ere, neska mini-gonadunekin eta apaiz frakadunekin eskandalizatzen ez bagara ere, ez direla ez lau eta ez sei izanen*, liburu honekin eskandalizatuko direnak. Hala ere, LUR editorialekoek ohar* egoki bat (hala ere edo horregatik) jarri dute liburuaren atarian bertan, liburu hau* listoen eta gizon tontoen eskuetatik urruti gordetzeko. Ez dadin honekin bete Ebanjelioko profetia eta kondena hura: «Haur eta moralista hauk eskandalizatuko dituenak, hobe luke baldin eta errotarri bat lepoari loturik bere burua erre kara botako balu.»

Zeren* liburu honen gaia izutzekoa da. Guri ere, Irakurri dugunean (eta ez gara errazki izutzekoak, bizitzeak, gure zentzagarri* krudel honek, aski irakatsi baitaiku), buruko biloak luzatu eta belaunak larritu egin baitzitzaizkigun. Gizon adineko* eta nagusi baten eta hamar-hamaika urteko neskatxa baten arteko amorioen historia baita*.

Askotan entzunda dadukagu, eta gehlenetan elizgizonen ezpainetatik, euskerak, sakristiaren barrerako hizkuntza bat izaten jarraiki dadin bitartean, haren liburuak meza-liburuak izaten iraun dezaten bitartean, ez duela salbaziorik edukiko, sakristian eta mezatan kristauak salbatzen diren arren, hizkuntzak

kalean salbatzen direla. Hizkuntzek ez bakarrik letaniak eta otoitzak behar dituztela; bai eta gordinkeriak eta solas zakarrak behar dituztela bizi izateko. Inork inoiz honela pentsatu baldin badu, ez dezala orain eskandalorik har, ez dadila fari-seoa izan. Hau pentsatu behar dut: Liburu honegatik gaizki esan behar baldin bada, irakur dadila lehenbizi*; eta nekez eta desgogara irakurtzen baldin bada, orduan esan bedi gaizki. Baina irakurtzen ez duena, isil dadila, ez dezala juzgu ausartik* egin; eta gustora eta atseginez irakurriko duenak ongi beza esan.

Nobela hau bere lehenbiziko redakzioan gipuzkera osatuan zegoen idatzirik; baina autorearen baimenarekin, eta egungo tendentziei jarraitzeagatik, editoreek euskera batu eta orokarrera* itzuli dute, Batasunaren Kutxan agertzen diren erregelak errespetaturik. Hortik aparte, Miranderen euskera ez da guretzat erraza; alde batetik haren zuberotartasuna, nahiz eta bera hemengo molde eta itxuretara ahalegintzen bada ere, edonondik agiri da; haitzari ura bezala dario Miranderi bere piri-notasuna. Beste alde batetik, eta beharbada Parisen bizi izateagatik herri normalarekin sobera* har-emanik ez duelako edo, Mirande puristegia da, eta maiz* hitz bat erderatik datorrelako, baztertu egiten du, eta haren orde besterik gabiago baina gaitzago bat erabiltzen du. Honek astuntasuna eta zurruntasuna* ematen dio haren euskerari, eta zenbait irakurle xehek* gaiztasun hori gaindituko* ez duela bildur gara.

Hala ere, ongi idatzirik dago. Nobela osoak, hasiera geldia eta baketsutik bukaera zurrumbilotsu eta ekalztura, ritmo arin eta bixkor bat darama, beti gorantza igaten dena, bere memento egokietan atsedean hartzen duena, dena Beethovenen sinfonia batean bezala ongi konposaturik eta konpasaturik, prezeki* neurturik, jakituriaz erregelaturik. Nobela bezala, erduztat hartzeko da.

Gaiari buruz, berriz ere, euskaldun prestu, ongi-pentsatzalle eta kristauari hain izugarri irudituko bazaio ere, begirik miopenak ikusi beharko du amorio hoek ez direla lizunak, haragiaren grina desordenatu eta desonestak ez duela bertan lekurik hartzen, libidoaren indarra ausente dagoela bertatik, gure erromantiko denbora zaharretan mendi-mendian Mirentxu eta Maitena baten amorioak ez zirela garbiagoak izan; azkenean amorio horrek gorputzez bere burua eta amalera hartzen baldin badu, funtsean* sinbolo bat dela, errebeliazko azken garrasia zoro bat, gizarte intolerante baten kontrako aldarri* desesperatu bat.

Eta Miranderen liburitik har dezakegun irakaskintzarik harri-garriena, hau da: Obra hau, libertadeari eskainutako* kantu bat dela; gezurra badirudi ere. Munduko hipiek inposiblearen bazterretan libertade amesgarri horri dedikatutako abesti eder, gaitz eta ezin bat.

Hitz bitan esan beharko bagenu HAUR BESOETAKO zer truditut zaigun, honela esanen* gure delat: Ikaragarritasunean mamitutako* edertasun Inposible bat.

ARESTIAR

ADIZTEGIA

(Orrialde honetan agertzen diren zenbait aditz forma, bizkaieraz adieraziak)

beza, **bel**.
dadukagu, **daukagu**.
darama, **daroa**.
dauku, **deusku**.
dezan, **dalan**.

dezaten, **daien**.
gaude, **gagoz**.
zaigu, **jaku**.
zioten, **eutsoen**.
zitzalzkgun, **jakuzen**.

BESTE KRISTAUAK

Garratza bada ere, egia da, eta esan egin behar da: gaur egun, Elizan, arrazakeria asko dogu. Ez dot esan nahi gorputzaren koloreak sortzen dauan arrazakeria; hori azalean bakarrik gelditu daiteke, Kristauen artean agertu jakun arrazakeria askoz ere sakonagoa, mingarriagoa eta deabru-tuagoa dogu.

Eliza, zatitu egin da. Barruan, "onak" gelditu dira; "besteek", bigarren edo hirugarren mailako Eliza sortu dabe. Eliza santuan, "santuak" bakarrik; santuekin bizi-tzeko gai ez direnak, Eliza isilean, ezkutuan, zigortuan.

Oraintxe gogoratzen jat Hego Afrikatarrek asmatu-riko Askatasunaren Agiria. Honela inoan*: "Bertan bizi diren guztiena da Hego Afrika. Inork ezin daie eskuratu agintea, herriaren nahiak eman ezean..." Eta jakina, herri hori herri osoa da, eta ez zati batena bakarrik.

Horrela hitz egiten ebenak, zurien menpean egozen beltzak ziren. Eta lehen esan bezala, Elizan ere bai zuriak eta bai beltzak bizi dira; gorriak eta berdeak ere bai. "Bizi dira" esan dot; hobe lizateke, "bizi behar dabe" esango

baneu. Dana dala, alferrik esango deuskue guztiena dala; agintzen dabenak, danak, zuriak ditugu. (Berriz ere esan, ez naiz goroputzeko koloreaz ari*).

Gauzak horrela direla esatea mingotsa da, bai. Mingotsago horregatik egia dala pentsatzea eta jakitea!

Guztiok dakiguna da, han-hemenka, herri batzuetan, bigarren Eliza sortu dala. Ez dago gehiegi nekatu beharrik, horretara zergatik eta zelan heldu ote garen jakiteko. Done Paulok esana da: bakoitzak ba dau bere dohai berezi bat. Eta egia hau, kristautasunaren txostena dan egia hau, errespetatu beharrean, apurtu egin nahi izan dabe batzuek. Orduan, "besteek", euren dohaia biziko badabe, eta euren kontzientziaren jabe izango badira, Eliza haundia utzi eta bigarren txiki bat sortu beharrean aurkitu dira.

Espiritu Santuak argituko ahal gaitu guztiok noizbait: zuriak, euren burua apaltzen ikasi daien; beste kolore guztietakoak, bakanduak eta zigortuak bizi diren bitartean, inor gorrotatzera heldu ez daitezen.

MARKOX AMUNDARAIN

ELIZAKO BARRIAK

Vaticanoko hertzainak kexatsu

Joan dan abuztuan, ordu erdiko geldiene bat egin izan dabe Vaticanoko hertzainek*, alogeren altzatzeari tematsu lotzen zirelarik. Hertzain honeek 110.000 lira jasotzen ditue hilero (11.000 pezeta), eta Elizaren gobernamentu nagusiko etxea zaintzen dabe.

Legutiano ta Ubideako abadeen euskal zaletasunaren inguruan

Bai Legutianon* (Arabian) eta bai Ubidean (Bizkaian), hango abadeei eskatu izan jake euskerazko mezaren bat herrian jartzeko. Herri bietako abadeek ezetzarekin erantzun izan dabe, euren herrietan euskaldunak hain gutxi izanik, horretarako "pastoralezko arrazoirik" ez dagoela ta.

Berez, halan izango da. Baina halan izan "behar ote dau"? Jendea, berez, ez da katolikoa; baina herrixka horreetako abadeak abade badira, benetan ahaleginduko dira, berez halan izan ez arren, jendea kristautzen. Eta zergatik ez egin ahalegin berdina euskeragatik, Eliza gizon "osoaren" salbatzaile bada?

Gasteizen parrokia berria

Abuztuaren 29-an, San Frantzisko Asiskoaren izenagaz parrokia berri bat eraikia izan da Gasteizko Fermin Lasuen kalean, Zaramaga hauzunean. Horretarako elizkizunetan Gasteizko Gotzaina izan zan.

Francisco García Salve-ri 50.000 pezetako zigorra

Seguridadearen Zuzendaritza Jeneralak 50.000 pezetako zigorra ezarri deutso esandako abade jaunari. Europa Press-ek dinoanez, sindikalista batzuk abade horren etxean bildu* ziren, horretarako baimenik ez eukelarik.

Abade sekularituak

425 bat mila abade dirateke* mundu zabalean. 1963-tik 1968-ra, ehuneko 1,6 ei dira sekularizazioa eskatu dabenak. Zehatzago esanda, 7.137 abadek eskatu eben, eta 5.652 abaderen eskaria onartu zan.

Konkordatu berria luzarorako

Konkordatu berria ez da berehala* egingo, esan dau Pivone jaunak, Vaticanoak Madrilen daukan Nuntziaturaren buruzagiak. "Ya" Madrileko egunkariak* adierazo dauanez, Obispoak izendatzeko modua izango ei da punturik zailena.

«Opus Dei»-ko 22 abade berri

Luigi Dadaglio Nuntzio jaunagandik hartu izan dabe apaizgoa Opus Dei taldekoak diren 22 gizon gaztek. Eurotarik 6 midikuak dira, 3 inginadoreak, 2 militarrik, 2 legegizonak, 2 ekonomistak, 2 filosofilariak, 2 zientifikoak, 1 arkitektoa, 1 matematikoa, eta 1 ofizio bako jakituna. 9 Espainian jaiok dira, 3 Mexican, 2 Colombian, 2 Inglaterran, eta bana jarraiko nazioetan: USA, Argentina, Portugal, Canada, Austria eta Alemanian. Eliza, jakituriaren bidetik abiatu da...

Ignacio Orbegozo, Eibar aldeko artzipreste berria

Motrikuko eretore dan Ignacio Orbegozo abade jauna, Eibar inguruko artzipreste kargurako hautatua izan da, bere abade lagunen botoz. Gotzainak ontzat eman dau hauteskunde* hau, Herritarrek ez dabe parte hartu izan.

Patxo Garat abade berria

Nafarroa Behereko Hazparne herri dotorean eman izan dau bere lehenengo meza Patxo Garat gazteak, joan dan abuztuan. Gotzaina, hainbeste abade eta herritar egon ziren mezaberrian.

Zirarda jaunarekin

Euskaltzaindiak eskari bat egin deutso Zirarda jaunari, Bilboko Herri Irratian* euskera sartzeko. Eskari hori kartaz egin jako eta eskuz eman. Eskari hori betetzeko ahaleginak egingo zituala erantzun eutsen gotzainak, beragana joan ziren akademikoei.

Don Gines Aretxaga Bermeoko erretoreari omenaldia

Jubilatzekotan dan Don Gines Aretxaga Santa Mariako parroko jaunari, omenaldi bat egin izan jako irailaren* 6-an. Zirarda Gotzain jauna ere han izan zan, zenbait abadegaz batera meza santua emanaz.

Bizkaiko «Caritas» Peruri laguntzen

Joan dan abuztuaren azkenetan, 410.000 pezeta eman izan ditu Bizkaiko «Caritas»-ek Perutarrentzat. «Caritas» berak 100.000 pezeta eman izan ditu; 134.000 banku etxeek, eta beste guztia herriko jendeak. Jestio guzti honeek Peruko Enbaxadaren bidez egin izan dira. «Caritas», Elizak behartsuei laguntzeko antolaturiko erakunde* bat da.

Aita Lertxundi ta Iratzederren «Pasionea» Angelun

Lapurdikoko Angelu herrikkako elizan eman izan da Aita Beneditano ospetsu diren Iratzeder eta Lertxundiren «Pasionea», edo Jesukristoren pasioa kantuz.

Imanol Sorondo, artzipreste berria

Jatorriz Oiartzundarra dan Imanol Sorondo izanen* da aurrerantzean Bergara inguruko artzipretea. Orain arte Bergarako Done Pedro elizako erretorea zan.

Done Mikel Garikoitzen omenez elizkizunak

Irailaren 2-an ospatu izan dira Nafarroa Behereko Ibarren elizkizun batzuk, San Mikel Garikoitzen omenez. Goizeko 6-retan hasita, ordurik ordu, mezak. 10-etan, meza nagusia, Donapaleuko* Pagola erretore jaunak predikua eginez. Bazkolondoan, bezperak eta gurutzbidea.

ZORNOTZA

Aurreko zenbakian, 194-garrenean, Leunganek (ez dakit nor dan eta, berari ezin ezer esan), Larrako komentua aipatzen dau, Ikastola dala ta.

Maiatzean edo, arduradunak, Ikastolarako tokirik emango ote geunskioen etorri jakuzen. Baietz esan geuntsen. Ta nahiz komentu ondoko etxea, nahiz komentu alderdi bat, nahiz solo zati bat, «prefabrikada» horreerakoak jasotzeko eskaini* geun-tsezan: euren esijentziak eta geureak ezkondu eta toki ego-kiena gertutzeko. Soloa eskaini gendualako, bazkide batzuk ha-serretu egin ei ziren. Guk ez dakigu zergatik izan daiteken.

Orain aparejadoreak komentu alderdiko planoak egiten di-hardu. Obrak hasi baino lehen, teknikoak, Ikastolakoak, kom-entukoak eta gure goiko Nagusiak elkarregaz konformatu beh-ar, eta ez dakigu noiz zabaldu ahal izango ditugun ateok. No-lanahi ere, gastu haunditxoak egin beharko da, dana dotore, le-gez, egoki... egon dadin.

Baina ez da egia, aurtun fraidegairik ez datorkigulako har-zen ditugula Ikastolako umeak. Jainkoa lagun, hilabete hone-tan bertan etorriko jakuz gazte batzuk. Eta urte askotan euki daiguzala bai umeak eta bai fraidegaiak!

Gero koroea aipatzen dau. Azkenean honetara dino: «Eman-go ote deutsee barru Karmeldarrei?» Hara. Koroea ez da Karmeldarrena, Ama Birjina koroatzeko zer bait eman eben-kris-tau guztiena baino. Guzti horreen asmoak eta gogoak errespeta-garriak eta haintzat euki beharrekoak dira.

AITA PRIOREA

12 HARRIETATIK

Mañarian, abuztuaren 15-ean, Euskal Abeslarien Jaia ospatu zan. Laboa, Lurdes Iriondo, Ana Tere ta abar egon ziren. Aurt-en asko ahalegindu dira Mañariarrak, jai herriko batzuk ant-olatzen.

Durangoko San Roke hauzunean ere, eurenak ospatu zituen. Entzun dodanez, euskal abeslariak baino ez ziren falta izan; beste guztia oso ondo egon ei zan: jolas, zoinu, bertolari, eta abar. Ea ba, erretore jauna, datorren urterako esku zabal-toxagoa mesedez abeslariarentzat, euskerak, aurrera joateko, abeslarien beharrezana ere ba dauka ta.

Abuztuaren 26-an, Bizkaiko C.I.T. dalakoak antolatuta, ome-naldi bat egin jakon Garaiko herriari. Dirudianez, herrixka hau turismo arloan aurrenetañiko mailan jartzeko bidean doa; eta hainbat asmo ta erraztasun ei dagoz, turismoa bertara eroa-tek.

Irailaren 20-an, urtero legez, Elorrioko lurraldeetan, Gipuzkoa ta Arabako mugan dagoen Betsaide mendian, hiru herrialdeeta-koen* elkartasun eguna ospatuko da, medietan hildakoen alde meza bat eskainiaz.

Ohitura zaharrari jarraituaz, Abadiñotarrek Urkiolara igan* eben, abuztuko azkenengo larunbatean*, errogatiban. Goizean, beti bezala, ardo zahagi bat eman eben, Urkiolan hotza ken-tzeko; eta beste bat arratsaldean Abadiñon, jendearen egarria asetzeko.

Abuztuaren barruan, eskualdeko* dantzari taldeen ardura-dunek batzar batzuk euki ditue, Zarauzko Dantzarien Bilera* Nagusiari begira. Batzar horreetan, gure eritziz Dantzarien El-karteak eroan behar dituan bideak arakatu* ziren; eta danon artean gertaturiko proposamendua Zarautzen irakurri zan.

Laburkilo esanda, Elkartearen araudiaren* kritika bat egin zan lehenengo. Izan ere, dantzariak gaur egunean dauken arau-dia, txistularienaren kopia bat da. Euskal Herriko erakundeetan* ez da egundo ere agertzen holan eraturiko araudirik. Orain arte, batzorde* nagusia herrialde* batekoa da oso osorik, eta urte birik behin oso osorik aldatzen da herrialde batetik best-tera, goitik beheraino, maila guztietan, beste herrialdeetarako delegadu batzuk goitik aukeratuaz. Era honek ez dau egundo sustralirik izan gure herrian. Beraz*, horren orde proposatzen zan, Euskal Herri osoa eskualdetan banatzea, banaketa hau egi-teko pertsona batzuk hautatuaz*, eta, banaketa hau egin os-tean, eskualde bakoitzeko taldeek eurek aukeratu euren orde-zkaria, eurek baitakie* zeinek hobeto errepresenta leikezan. Or-dezkari guzti honek osotuko leuke batzorde nagusia, eta bat-zorde nagusi honetatik urtengo leuke lehendakari, idazkari*, diruzain eta beste enparadu* guztiak. Honezaz gainera, bulego* bat finkatu herri batean, esate baterako, Donostian, huri hau baitago Euskal Herriaren erdian; eta jarri bertan lagun bat, El-kartearen burokrazia guztia eroan leian.

Proposamendu hau onartua izan zan gehienbat. Lehengo bat-zordeari urte biko epea* eman jakon, araudiaren aldakuntzak egiteko.

Horrezaz gainera, gure eskualdeko batzar horreetan, gure dantzarien beharrezan preminazkoenak arakatu* ziren: dantza maisuak gertatu, inbestigazio talde bat sortarazi, dantza ta so-lu zaharrak batu, talde autoktonoak indatu ta bultzatu... eta, gehienbat, dantzel buruz egon diren pentsamendak aldatu, etor-klunari begira.

JOAN AROMA

EIBAR

Beti ginen ANAITASUNA-ra inguratzeko asmotan, Eibarko albiste* emate honetan. Aspalditxodanik politto gehitu dira gure herrian ANAITASUNA-ren harpidedunak; izan ere, beste edozein aldizkari baino errazago irakurtzen dogu Eibarren ANAITA-SUNA. Ba dago beraz*, behingoan, nork irakurri; ez dirudi, os-tera*, idazteko inor dagoenik.

Itxura danez, aldizkari honen zuzendariak helburu aberatsak ditue; eta lehenengoz behintzat, neurritz nahiz sakontasunez, hain maite dogun hamabosterokoa haunditzeko deben asmoa azaldu deuskue.

Haunditze eta gehitze honetan, herri guztietako albiste emai-le eskatu ditue; eta lotsagarria lizateke, zeregin hori betetze-ko, geure herri kanpolarrosa* eta harro puzpulo honetatik inor ez agertzea. Besterik ezean, geuk dakargu aurren geure burua, buru elkartua hain zuzen; baina jakin eizue guztiok, hiru xemai-koan* salgai dagoela puestoa. Ez ote dago inor gazteen artean, neska nahiz mutil, lan apurtxo bat egiteko prest legokenik? Ea ba!

Gainera, ez da hau bakoitzak bere gain bakarrik hartu lei-ken lana. Taldeka egin geinkena da, eta beharbada errazago eta onuragarriago. Horra hor Elgoibarren «Marisabel» deritxon tal-dea, 12-12 laguneko talde behargina*, beharginik bada. Eta orain-goan behintzat, neurri neurrian datorkigula Eibarko berba hau uste dogu. Euskal arazoetan lana baino beharra baitago.

Noiz guk, Eibarren, horren talde prestu bat? Elgoibartarrak baino lau bider gehiago ei gara Eibartarrok; eta, hala ere, inoiz ere hiru katu galdu bildu* ezinik.

Alfabetatze taldeetatik sortu behar jakuz behargin berriak. Hirurogeiren bat alfabetatze ikasaldi jarraituak dira. Non dira horreek? «Etxean sartuta, bildurak eraginda», Xabier Letek esango ebanez? Jakin edo ikasi daben guztia gutxi bada ere, eurentzat bakarrik ikasi ote dabe? Ez ote dauke ezer esateko-rik, ezer eskaintzekorik*?

Ea ba, apurka apurka inor agertzen dan, luma berriak azal-tzen diren, aurpegi berriak ikusten ditugun, eta beti gauza ber-dinak esateko premiarik ez dogun.

Eibarko albiste emallerik bai ala?

«Chapurreado»

Oraintsu, Eibarren bizi dan Oñatiar batek, Aurrezki Kutxak zozkatutako etxe bat irabazi dau. Donostiako eguneroko guztiek aipatu dabe berri hau eta Oñatiarrarekin eukitako elkarrizketa ere bai. Ez daukagu ba bere izena ezkatatu beharrik, la la etxe-ko egln jaku ta. «L. T.» Izenpetzen dauan periodista moduzko batek prestatutako elkarrizketa irakurria dogu. Hona hemen Ei-bartarrok dagozkigun berba batzuk: «La Señorita Jesusa Ugarte habla el euskera formidablemente, aunque empieza a dejarse influir por el «chapurreado» de Eibar.»

Hauze hau! L. T. fenomeno horrek ba ote dakl euskeraz, eta oñatiarra eta eibartarra gonbaratzeko lain* bai? Onenean ere, astean behin euskeraz egiten daben Donostiar horreetariko bat izango da. Hamar t'erdietako mezan «ogi zerutik etorria» kan-tatzen dabenetarikoa hain zuzen. Poliki poliki, goxo goxo, hori bai. Gutxi, baina ongi.

Haurrentzat

Irailaren* 15-ean, San Pio X, San Andres eta Karmeldarren parroketan, «Katekesi eta haurren* kultura» deritxoan ikasaldi batzuk hasiko dira, hiru, lau eta bost urtetako umeentzat.

Euren seme-alabak ikasaldi honeetara bidaldu nahil daben gurasoek, aipatutako edozein parrokiatara telefonoz deltu dai-kee. Bertan emango deutsee ikasaldiei buruzko gura dituen xehetasunak.

Parrokia berria

Eliza amak uste dauanez, sei mila lagun baino gehiago el-kartzen dituen parrokiak ez ei dira egokiak. Horrelakoetan Pa-rroko jaunak ez ei dau parrokiarrak ondo ezagutzerik, ezta bere eginbeharra ondo betetzerik ere.

Horrela, San Andres parrokia haundiegia dala ta, Donostia-ko Gotzainaren aginduz, parrokia berri bat izango dogu hemen-dik aurrera, herriko bosgarrena, San Agustin izeneko parrokia hain zuzen.

San Andres parrokiak lasaitasun demasa* hartuko dau, orain arte euki dituan edozein* kale parrokia berriak hartuko ditu bere gain eta. Alegia*, Jardinak, Matxari (baserri ta guzti), Ez-tazino kalea, Ibarburutz, Pagei, Maria Angela (gehiena), Fundi-dores (eskuinaldea), Bidebarrieta (zati bat) eta San Agustin kale osoa.

Parroktzat Balbino Ayerbe izendatua izan da, oraindino San Pio X. parrokiako koadjutore izandakoa. Aurrez geure zo-rion berroena Balbino jaunari; eta ez izendatze horregatik ba-karrik, baita parrokia berriaren albiste ernal egunerokoetan euskeraz eman daualako ere.

ALBISTARIAK

"GUIA DEL PAIS VASCO"

INFORMACION
TURISTICA

GUIA DEL

PAIS VASCO
PAYS BASQUE
BASQUE COUNTRY
EUSKALERRIA

JOSEBA M.^a y SABIN GEREÑO



240 orrialde dituen liburua,
argazki askorekin, lau hizkun-
tzatan egina.

Joseba ta Sabin Gereñoren
Zuzendaritzapean idatzia.

Gaurko Euskal Herria zer den
jakin nahi duenak (jaiak, klub,
hotelak, eta abar), beharrezkoa
du liburua hau.

Prezioa: 150 pezeta.

Euskal Herriko liburutegi
guztietan salgai.

Guipuzkoako zabaltzailea:
Manterola Liburutegia (Mante-
rola kalea, DONOSTIA).

LUR

kultura herriarrentzat

ANAITASUNA

«ANAITASUNA» ARGITARATZEN, HOBEAGOTZEN ETA ZABALTZEN LAN EGITEN DABEN GUZTIEI, GURE ESKERRONIK GARTSUENA EMAN NAHI DEUTSEGU.

Esku artean dozun ANAITASUNA hau haundiagoa eta apainagoa dala uste dogu. Ez al deutzazu zure laguntza emango, hurrengo urtean are* haundiago ta apainago izan dadin? EGIZU BESTE HARPIDEDUN BERRI BAT.

Izen-abizenak

Bizitokia

Herria Probintzia

AMADO IRARKOLA

“Anaitasuna” ta Euskal Kulturaren alderako Irarkola.

ALDA. MAZARREDO, 85 - TELEFONO 21 84 09 - BILBAO-9

ABESLARIENTZAT

Dakizuenez, abestuteko beharrezkoa da Karnet Sindikala eukitea.

Datorren urrian, Bilbon, Bizkaikoentzat, esaminak izango dira, Karnet hori lortu nahi dabeneztat. Orain hasi eta irailaren* azkenerarte presenta leitezke instantziak, esamina horreetan parte hartzeko.

Informaziorako joan Sindikatora (Sindicato del Espectáculo - Ercilla, 27, 4.º), edo idatzi ANAITASUNA-ra, eta geuk bidalduko deutzeguz bete behar diren paper guztiak eta gainerako informazio osoa.


BIZKAIKO AURREZKI KUTXAK Bilbon eta Probintzia guztian, laguntzarit zabalena ematen dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zure dirugordetzerako:

Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao
Telefono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90
URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako herririk nagusienetan 70 etxeordezko
Madrileko ajentzia: I. C. C. A. Alcalá, 27
Telefono 2 21 49 95



«ANAITASUNA BIZKAIA»

Zuzendaria: Anjel Zelaleta Gisasola.
Jabea: Kantauriko Frantziskotar Hirugarrendarrak. Intxaurren, 3 - Durango.
Idazkola ta banakola: Jardín Txikerra, 1 - Bilbao (12).
XIX. urtea, 175. zenb., 1970. Irailak 15.
D. L.: BI - 1.756 - 1967.
Inprimatzen dau: Imprenta AMADO, Bilbao.

I. HIZTEGIA

(Ale honetan izartxo bategaz agertzen diren berbak)

ABANTAILA, **ventaja**.
 ABELGORRI, **ganado vacuno**.
 ADINEKO, **edadeko**.
 AGERKARI, **publicación periódica**.
 AGIRI, **documento**.
 AHATZ, **ahaztu**.
 AHUL, **makal**.
 ALBISTE, **berri, notizla**.
 ALDARRI, **garrasi**.
 ALEGIA, **hau da, es de clár, a saber**.
 ARAKATU, **aztertu (gehiago)**.
 ARAUDI, **reglamento**.
 ARAUERA, **según, en conformidad con**.
 ARDIETSI, **lortu, alcanzar**.
 ARE, **oraindino (gehiago)**.
 ARI IZAN, **jardun**.
 ARITU, **ari izan, jardun**.
 ARRO, **cuenca de río**.
 ARTE, **encino**.
 ARTILE, **ardi lle, ardi ule, lana**.
 ASKI, **nahiko**.
 ASPERTZEKE, **aspertu barik**.
 AUSART, **temerario**.
 AXOLA, **ardura**.
 AZKON, **dardo**.
 AZOKA, **merkatu**.
 BADAEPADAKO, **inseguro, dudoso**.
 BAIKARA, **bait gara, gara ta**.
 BAITA, **bait da, da ta**.
 BAITAKIE, **bait dakie, dakle ta**.
 BAITIRA, **bait dira, dira ta**.
 BAITITUZTE, **bait dituzte, ditue ta**.
 BAITZEN, **bait zen, zan eta**.
 BAITZUEN, **bait zuen, eban eta**.
 BARATZAIN, **hortelano**.
 BATZORDE, **comisión**.
 BAZTER, **baztertu**.
 BEHARGIN, **langile**.
 BEHINBEHINEKO, **provisional**.
 BELAUNALDI, **generación**.
 BERAZ, **hori dala ta, por consiguiente**.
 BEREKIL, **automóvil**.
 BEREZIKI, **batez ere**.
 BEREHALA, **behingoan, en seguida**.
 BEZAIN, **balzen**.
 BIDE, **antza, nonbait**.
 BILDU, **batu, elkartu**.
 BILERA, **batzar, concentración**.
 BOLADA, **unada, sasol**.
 BORTITZ, **Indartsu**.
 BOTERETSU, **Indartsu**.
 BUKATU, **amaitu**.
 BULEGO, **oficina**.
 DATEKE, **da nonbait, izango da**.
 DEMASA, **haundi**.
 DIRATEKE, **dira nonbait, izango dira**.
 DONAPALEU, **Saint-Palais**.

DUIN, **justo**.
 EDOZENBAT, **zenbatgura**.
 EDUKI, **euki**.
 EGINEN, **egingo**.
 EGUN, **gaur**.
 EGUNKARI, **eguneroko periodiko**.
 EKIALDE, **sortalde, Este**.
 ELIZALDE, **anteiglesia**.
 ENPARADU, **restante**.
 ENPARANTZA, **plaza**.
 EPE, **plazo**.
 ERABAT, **zeharo**.
 ERAKUNDE, **estructura, institución**.
 ERE, **bere, be**.
 ESAMESA, **habladuría**.
 ESANEN, **esango**.
 ESKAINDU, **eskaini, ofrecer**.
 ESKAINI, **eskini, eskein, ofrecer**.
 ESKUALDE, **comarca**.
 ESKUIN, **esko, eskuma**.
 ETSAI, **arerlo, enemigo**.
 ETSIPEN, **desesperación**.
 FUNTS, **hun, gun, mulln, barne**.
 GAINDITU, **superar, vencer**.
 GALDERA, **Itaun, pregunta**.
 GATAZKA, **iskanbila, zalapartada**.
 GENIOTSAN, **esaten geuntsan**.
 GEZI, **flecha**.
 GORAZARRE, **laudorio, alabanza**.
 GUDAROSTE, **ejército**.
 GUTXIETSI, **menospreciar, subestimar**.
 HARAN, **ibar, valle**.
 HAUR, **ume**.
 HAUTATU, **aukeratu, elegir**.
 HAUTESKUNDE, **elección**.
 HAZIL, **zemendi, noviembre**.
 HERRIALDE, **provincia**.
 HERTZAIN (herrizain), **policía**.
 HONAKO, **honelako**.
 HONAN, **honelan**.
 HOTS, **hau da, a saber**.
 HURBIL, **hurte, cerca**.
 HURIGINTZA, **planificación urbana**.
 IDAZKARI, **secretario**.
 IGAN, **igon, lgo**.
 IGANDE, **domeka**.
 IHARDUKI, **jardun**.
 IHES, **lges**.
 IHIZTARI, **ihizlan dabilena, cazador**.
 IKERTU, **aztertu, arakatu, examinar**.
 IKUSTEKE, **Ikusi barik**.
 INKESTA, **encuesta**.
 INOAN, **esaten eban**.
 IRAGAN, **igaro, pasar**.
 IRAIL, **septiembre**.
 IRAULTZA, **revolución**.
 IRRATI, **radioemisora**.

IRUDIOZ GAIN, **irudi horreez gainera**.
 ITAUNDU, **galdetu, preguntar**.
 IZANEN, **izango**.
 JADANIK, **ya**.
 JAUZI, **salto**.
 KALONJE, **canónigo**.
 KANPOLARROSA, **obsequioso con los de fuera de casa**.
 KASIKAN, **la, kasik**.
 KINKA, **momento crítico**.
 KONDAIRA, **historia**.
 LAIN, **beste, aina**.
 LARUNBAT, **zapatu**.
 LEGETXE, **bezalaxe**.
 LEGUTIANO, **Villarreal de Alava**.
 LEHENBIZI, **lehenengo**.
 LEINU, **jatorri, linaje**.
 LUZAIDE, **Valcarlos**.
 MAIZ, **sarritan**.
 MAMITU, **mamindu**.
 MEHAR, **hestu**.
 MENDE, **menpe; siglo**.
 MENDEBAL, **sartalde, Occidente**.
 MUNTAKETA, **montaje**.
 NABARI, **patente, notorio**.
 NEREKIKO, **nire ustez**.
 OHAR, **advertencia, nota**.
 OMEN, **ei**.
 OSTEKUN, **eguen**.
 OSTERA, **berriz; ibilaldi, viaje**.
 OROKAR, **general, común**.
 PAIRATU, **jasan, sufrir**.
 POZOINDU, **envenenar**.
 PREZEKIZI, **con precisión**.
 SALBUESPEN, **excepción**.
 SOBERA, **gehlegi, larregi**.
 SOLASKETA, **conversación**.
 SUKARRI, **su egiteko harri, pedernal**.
 TAMALGARRI, **penagarri**.
 UDAL, **Ayuntamiento**.
 UKAN, **euki, izan**.
 UKANEN, **ukango, eukiko**.
 UKITU, **ikutu**.
 UZTAIL, **julio**.
 XEHE, **sencillo, corriente**.
 XEMAIKO, **bost zentimoko moneda**.
 XIPI, **txiki**.
 ZAIL, **gaitz**.
 ZATEKEEN, **izango zan**.
 ZENBAIT, **batzuk**.
 ZENTZAGARRI, **zentzudun egiten gal-tuana**.
 ZEREN, **ze, pues**.
 ZIZTOR, **estalactita**.
 ZURRUNTASUN, **pesadez, lentitud**.

II. IDAZTEKO MODUA

Txarto:

Ideia hori tamalgarria deritzait.
 Gipuzkera hutsean hitz egin eta idaztea, ez deritzat beti jokabide zuzena denik.

Ondo:

Ideia horri tamalgarri deritzat.
 Gipuzkera hutsean hitz egin eta idazteari, ez deritzat beti jokabide zuzena denik.

IMANOL BERRIATUA

"ANAITASUNA" ETA EUSKERA BATUA

ANAITASUNA-n erabiliko den euskera batuari buruz, erabaki hauek hartu ditugu aldizkari honen zuzendaritzan parte hartzen dugunok:

- 1971-garreneko azken egunerarte, BATASUNAREN KUTXA-n agertzen diren moldeez eta erregelez baliatuko gara.
- Aditzaren era dobletarik lehenak erabiliko dira, UKAN aditzaren hirugarren pertsona datibo bati KE hizkia gaineratzen zaionean izan ezik. Adibidez, DAUTZUT eta ez DIZUT, NEUTZUN eta ez NIZUN, Baina NIOKE eta ez NIKEO, NIZKIEKE eta ez NITIKEE.
- KE hizkia daramaten hirugarren pertsona aktiboko adizkietan, KE horren eta TE pluralaren ezaugarriaren artean I bat sartu da. Hau liburuaren egileen huts bat besterik ez da izan, eta I hori kendu egin behar da.

Erabil bedi, beraz, adibidez, LUKETE eta ez LUKEITE.

- Baldin idazleatariko inor BATASUNAREN KUTXA-ko edozerekin ados ez baletor, edo hemen hartutako erabakiak onar ez balitza, bere gogara dena erabil lezake; bina ANAITASUNA-ren zuzentzaileari idatzi beharko dio, bere asmoa adieraziz. Zuzentzailea: Imanol Berriatua, Irala, 8 - Bilbao (12).
- Euskal Herriko irakurle guztiei, hemengoiei eta mugaz haraindikoei, erregu sutsu bat egiten diegu: BATASUNAREN KUTXA-n agertzen den edozerekin nahiz ANAITASUNA-n idazten den moduarekin konforme ez bazaudete, bidal otoi zuen eritziak aldizkari honen zuzentzailearen gana, denon artean euskeraren batasuna ahalik ondoen egin dezagun.

ZUZENDARITZA

A I A L A (2)

Alalako eskualdeak* hartzen dituan udalak* aztertuko ditugu orain banan banan:

Laudio

37,67 km.² eta 11.660 bizilagun, 1965-aren amaieran. Bere hauzoak hiru taldetan banatuta dagoz: Gojenuri (herriburua), Larra-Areta eta Larrazabal-Olarte, azken honetan Gardea aurkitzen dalarik. Gasteiz kenduz gero, gaurko Araban Laudio da hurririk haundiena. Gasteiztik 52 kilometrora, eta Bilbotik 23-ra. 1491-erarte Bizkaikoa izana, gero Arabako anaiarteetan sartu zan, Aialako taldean; baina, hala ta guztiz ere*, oraindik Bizkaiko Forua dauka ofizialki, herrialde* horretako beste edozein elizalderen* moduan. Laudioko salerosketa gehientsuena Bilbon egiten da. Bizkaiko Orozko harana* eta Arrankudiaga ta Arakaldo herriak alboan ditularik eta Aiala eskualdeko herri nagusia dalarik, ofizialki Amurrio gehiago bada ere, Laudio dala esan geinke, mugak hausirik, herriburu agiriarena. Industria herria, 5.189 langile zituan 1966. urtearen azkenean, 150 bat ola* ta lantegi eta hainbat banku etxe. Lehengo ola zaharrak itxi zirenetik harrezkero, 1936-an hasi zan herri honen industrializazioa, «Vidrieras de Llodio» izeneko ola handiarekin. Gaur alzeiru ola haundi bat eta Areta hauzoko «Ardau» izeneko ardo ola dira nagusienetarikoa. 1.135 Ha. ditu basotan, 2.213 landa ta larratan, eta 319 solo ta ortutan. Gaur baserria bigarren maila batean dago, eta, basetxeak gutxituaz, pinudiekin gehitzen doa. Nerbion hibai arroaren* erdi inguruan, Bilbotik Pancorbora erregebidean aurkitzen da, eta Bilbotik Mirandarako trenbidea ere* bertatik igarotzen da. Aiala eskualdean, azkenengo galdu da herri honetan gure hizkuntza; baina gaur ikastola bat irekia dago, eta bertako Lasallear fraideak euren ikastetxean aurten euskera irakasten hasteko dira.

Okendo

30,05 km.² eta 700 bizilagun. Bere hauzoak: Irabien, Jandioa, San Roman, Ugalde, Billatxika eta Zudibiarte (herriburua). Laudiotik Mendebal* aldera aurkitzen da, Enkartzioetako Gordexola hurrengo herria daualarik. Gasteiztik 58 kilometrora, eta Bilbotik 24-era. Herri hau pixka bat bakartadean dago, Bilbotik hurbil*, atsedean leku ederra izateko; horregatik hainbeste Bilbotar joaten dira bertara jaiegun eta larunbatetan*. Baserri herria izan arren, baso herria dala esan geinke ia osorik herri hau. Kontuan eukitzea baino ez dago, 1,92 km.² direla lur landuak eta 1,17 landak, eta beste dana baso hutsa, gehiena pinudia. Udalak* 400.000 pinu ditu sartuta, herritarrekin batera. Ia ez dauka Industriadik, bost zerra etxe kontatuz gero.

Artzeniega

28,46 km.² eta 1.089 bizilagun. Bere hauzoak: Gordeliz, Mendieta, Kanpixo, Tudelako Retes, Santa Koloma, Soxogotl eta huria. Gasteiztik 60 kilometrora dago, Gordexola eta Mena haranarekin* muga egiten daualarik. Handiki huria izandakoa, jauregi ederrak ditu; bere gaurko ospea, jaiegunetako atsedean leku izatean gelditzen da. Herri oso polita, Arabako Ipar-Mendebal bazterrean egon arren, ikustea merezi dauana. Industria apur bat dauka: txorlzo ola*, eta beste lantegi txiki batzuk. Lur landuak 521 Ha. dira, eta basoak 2.244; hemen ere, ikusten denez, basoa gehiena, eta hortik pinua, nahiz eta haritz eta artetan* ere 225 Ha. egon. Turismoak ere aberastasuna ematen deutso herri honeri. 1272-garreneko hazilaren* 2-an heldu zan huri izatera, «Bizkaia eta Gasteizek dituen foru ta beste legeak hartuaz», orduko agiriak* dinoanez.

Aiala-Arrespalditza

140,30 km.² eta 2.771 bizilagun. Aiala izenagaz ezagutzen dan udal hau, izen hori eban analartearen zatirik nagusia da. Hain zuzen ere, 1845. urtean Erreinuako Aiumtamentuen lege berria atera zanean, lehenik Llanteno eta Sopena izeneko taldeekin osotu zan gehienbat udal hau, herriburu Arrespalditza gelditurik; baina ez beti: esate baterako, Luiando, Amurriokoa izanik, udal honetan sartu zan. Hainbeste ganorabakokeria egin zirenetariko bat da udal handiegi honen bizitza. 24 herritxo ditu:

Agñiga, Añez, Beotegi, Kostera, Etxegolen, Erbi, Izoria, Lexaso, Luxo, Luiando, Llanteno, Madaria, Maroño, Menagarai, Menorio, Murga, Ozeka, Olabezar, Kexana, Arrespalditza, Llanteno Retes, Salmanton, Soxo eta Zuatza; beraz*, Okendo, Lezama ta Amurriokoa izandako herritxoak ere* sartzen dira nahaste honetan. Udal honen Hego-Mendebal aldean mendikate luze bat dago, Garobel izenekoa, nahiz eta gaur «Sierra Salvada» oker deitu. Baserri udala gehienbat, Luiando eta Murgan dagoz industria txiki batzuk. 2.804 Ha. ditu lur landuak, larrarako basoak 6.726, arboladun basoak 3.250, eta ezertarako ez direnak 1.250. 1966-an egin zan kontaktetan 2.880 abelgorri* zituan, 7.000 ardi, 1.200 txerri eta 400 ahuntz; beraz, ba dauka ganadutza, nahiz eta aurrerapen askoz gehiago behar, udal honek dituan ahalmen guztiak produzioan jartzeko. Kexana herrian monasterio entzutetsu bat dago, artearen aldetik balio handia dauana; eta bertan barruan dagoz Alalako jaunen harrizko hilibi ederrak, eta Arrespalditza jauregi handi bat, Udaletxea, parrokia, espetxea, eta Aialako lehenengo jauna izan zan Belaren hilibia.

Amurrio

24,29 km.² eta 4.780 bizilagun. Bere hauzoak: Ablaga, Onsoño, Ugarte, Zamora, Kalea eta Landako (herriburua). Aiala eskualdearen legezko herriburua da gaur egunean; hain zuzen ere haren erdi erdian dago, administraziozko mugel begiratuta behintzat. Baserria euki arren (horretarako ba ditu lur ederrak), industriari gehiago josia dago orain. Bere lurak honan* banatzen dira: landuak 295 Ha., landak 229, frutarakoak 14, larra eta haritz 28, mendi 602, pinu 1.150, eta kale eta ezertarako ez dagozanak 111. Industria gehiena metalurgikoa da, nahiz eta muble etxe, orfebreria eta paitar lantegi batzuk bertan egon. Herri honetan aurkitzen dira eskualdeko hauzitegi, jabetasun bulego*, notaria, sindikatu bulego, eta horrelakoak. Beharbada, Arabak oraindik eskualde zerbitzuen planteamentu bat egiteko daualarik, hemen falta egiten dira eskualde bateri dagokiozan beste erakunde* eta bulego batzuk: hurigintzako*, eta abar. Bideen aldetik, hemendik igarotzen da Bilbotik Mirandarako trenbidea; eta bertan gurutzatzen dira Bilbotik Pancorbora erregebidea, eta Balmasedatik Gasteizerakoa. Herri honetan, ikastola bat zabaltzekotan ei dabilta, eta aspaldian galdurik dauan hizkuntza berbizteko seinale ona da.

Lezama

43,92 km.² eta 1.083 bizilagun. Udal hau osotzen daben herritxoak honeexek dira: Astobitza, Baranbio, Larrinbe, Lekamaña, Saratxo eta Lezama (herriburua). Amurrioren Ekialdean* dagoen udal hau bizilagunez urritzen doa, industriadik ezak jendea bertatik alde eragiten deusolako. Lezamar gehienek albo herrietako industrietan lan egiten dabe. Baserri hutsezkoa, 2.624 Ha. baso, 1.044 landa eta larra, 522 lur landu eta 200 txarra edo produzio bakoa, herri honeri elkartzea falta jako, beste herrietik bezala. Ba dauka «San Prudencio» izeneko kooperatiba bat, baina lehengo erakoa da. Herriburuan, harlanduzko jauregi eder bat dago, Larrako izeneko.

Arrastaria

19,40 km.² eta 603 bizilagun ditu Arrastariako haran* honek, lau herrixkatan banatuta: Aloria, Artomaña, Tertanga eta Delika (herriburua). Orduñagaz bat eginda ei egoen haran hau 1380-rarte. Orduñako aldatza deitzen jakon hasieran dagoz Tertanga eta Delika, eta beste biak Iparralderago. Gutxi ezagutzen diren herrixka honeek, azkenengo urteotan, Bilbotarrez betetzen dira uda aldean; eta turismo horrek aberastasuna ta bizia ematen deutse. Bestela, baserrietik bizi dira. Lurrak honan* banatzen dira: landuak 525 Ha., mendi eta baso 1.242, landa eta larra 170. Haran honek Orduñagaz egiten dau bere bizitza gutzia.

J. L. LIZUNDIA